



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

# **2016KO KUDEAKETA PLANAREN EBALUAZIO TXOSTENA**

**2017ko  
otsaila**



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## AURKIBIDEA

1. EMAITZEN BALORAZIOA, ARDATZ ESTRATEGIKOEN ARABERA .....	3
2. 2016KO URTEKO KUDEAKETA PLANEN BILAKAERA.....	23
3. 2016KO DATU ETA ADIERAZLE ADIERAZGARRIAK.....	45
4. 2016KO HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.....	48



## 1. EMAITZEN BALORAZIOA, ARDATZ ESTRATEGIKOEN ARABERA


2013–2016 aldirako Plan Estrategikoko azken ekitaldia amaituta, ebaluazio txosten honetan, IM-SCPSAren 2016ko bilakaera eta emaitza nagusiak aurkeztu nahi ditugu. Hain zuzen ere, 2013-2016 aldirako gogoeta estrategikoan –erakunde honen jarduna gidatu duten ardatz eta erronka batzuen bidez gauzaturako gogoeta estrategikoa– markatu genuen aukera multzoaren eta norabidearen arabera egingo dugu.

### 1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK: Herritarren gogobetetasuna handitzea, kalitateko zerbitzuak emanez eta aurretik planifikatuta.


#### Uraren Ziklo Integrala

2016an, ur ekoizpena 30.236.789 m<sup>3</sup>-koa izan da, 2015ean baino %0,01 txikiagoa eta azken bost urteetako batez bestekoa baino %2,54 txikiagoa. Nabarmendu behar da 2016an asteko datu minimo berri bat izan zela, 721 l/s-koa, urteko 12. astean (martxoaren 21a eta 27a artean, Aste Santuko jaiegunetan), aurreko datu minimo historikoarekin alderatuta (723 l/s), pitin bat txikiagoa. Azken datu minimo hori 2013ko Aste Santukoa da. 2016an, asteko datu maximoa, berriz, 1.373 l/s-koa izan da, abuztuko azken astekoa, eta, lehenik zegoen maximo historikoarekin alderatuta (1.659 l/s), dezente txikiagoa. Azken datu maximo hori 2006ko ekainekoa da.

Ekoiztiko eta fakturatutako metro kuboek azken urteetan izan duten bilakaera hau izan da:



Ur ekoizpenaren banaketa urtean zehar hau izan da, 2015arekin alderatuta:





2016an, erregistratu gabeko uraren behin-behineko datua %9,88koa da (fakturaturako kontsumoaren behin betiko kalkuluen zain gaude). Datu minimo historikoa da, aurreko ekitaldiko behin betiko datua baino txikiagoa (berez nahiko baxuan zen), orduan %11,48koa izan baitzen. Gehitu behar da emaitza hori arloko onenen artean dagoela Espainia osoan. AEAS elkartearen "Edateko ona den uraren hornidura eta saneamendua, 2016" azterlanaren arabera, adierazle horretarako Espainiako batez bestekoa %23koa da eta, berariaz, metropoli eremuei dagokiena %17koa da.

Hornitutako uraren kalitateari dagokionez, urtea normaltasunez joan da. Sarrien egin diren landa-jarduketek kloro analizagailuen doitzeeekin eta egiaztatzeekin izan dute zerikusia, eta bai berritze tasa baxua duten biltegi txikietan hipokloritoko eskuzko ekarpenekin ere.

Uraren Osasun Plana hedatzen jarraitu da, 2013an egindako diagnostikoko arrisku adierazgarriak minimizatuta. 2016 honetan egindako mugari garrantzitsu hauek nabarmendu behar dira:

- Eugiko urtegian egindako azterlan batimetrikoa eta kalitatekoa. Urpeko drone baten bidez egin zen eta Coruña Unibertsitatearekin izenpetutako lankidetzaren esparru baten barnean.
- Mankomunitatearen laginketa sare bat ezartzen hastea, autokontrolerako, Iruñerriko hornidura sektoreetan.

Hornidura sarea kontrolatzeko informazioa Kontsumoko Uren Informazio Sistema Nazionalan implementatu edo abiarazi da.

Saneamenduari dagokionez, nabarmendu behar da trataturako emaria 1.063 l/s-koa izan dela, eta arazketako batez besteko errendimenduak %95ekoak izan direla gai organikoetarako, %92koak nitrogenorako eta %80koak fosfororako. Lohien digestioak 403.883 Nm<sup>3</sup>/hilabete biogas ekoitzi ditu, eta metano kontzentrazioa %60koa izan da. 590.240 biztanle baliokiderako tratamendua kalkulatu da. Aipagarriak dira abenduan erregistraturako emari baxuak, hilabete horretan izandako prezipitazio eskas edo nuluengatik.

Arazuriko araztegiara isurtzen duten industriren aholkularitza eta kontrol ahalegina egiten jarraitu da, ura arazten duten eta biogasa lortzeko aukera ematen duten mikrobio populazioek ongi funtzionatzea ziurtatzeko.

Azkenik, adierazi behar da bi laborategietan, Egillorkoan (hornidura) eta Arazurikoan (saneamendua), Egiaztatze Enpresa Nazionalak (ENAC) egindako bi auditoretzak gainditu dituztela eta, horrenbestez, haien egiaztatzea bermatzen dutela UNE-EN ISO 17025 arauaren arabera.

## Ibai parkea

Parkerako aurreikusitako hornidura hauek amaitu dira urtean zehar:

- Burlatako ur biltegiaren argizatze apaingarria jarri da.
- Dorraburuko zubia berritu da, Uhartan, Arga ibaian.
- Moreako jolas eremua sortu da, Zizur Nagusian, Elortz ibaian.

Landabenen Iruñeko ibai pasealekuarekin konektatzeko lanak hasi dira, Arazuriko udal barrutian (Oltzako Zendea), eta aurreikusita dago hurrengo udaberrian irekitzea.

Era berean, Eguesibarren Urbi ibaiaren udalez gaindiko plan sektoriala aldatzeko izapideak bideratu ziren eta bai Arga Beherekoak ere (Arazuri-Ororbía). Hain zuzen, lehenbizikoa onartu du jada Nafarroako Gobernuak eta bigarrena onartzeko izapidean dago.




Azkenik, adierazi behar da Iruñeko eta Iruñerriko ibai parkeak bateratzeko azterlana amaitu dela. Une honetan, bi parkeen baterako kudeaketa arautuko duen hitzarmen bat egiten ari gara.

## Hondakinak


Hainbat urtean beherazko joera izan eta gero, 2014an hondakinen sorreran goranzko joera hasi zen eta 2016 honetan goraka egiten jarraitu du. Zehazki, 2016 honetan sortutako tonak 142.296 izan dira, barnean hartuta etxebizitzetan eta auzoetan konpostatutakoak, eta, beraz, aurreko urtean sortutakoekin alderatuta, %1,18 gehiago da.

Emendatze hori gorabehera, 2016an 842 tona hondakin sortzea saihestu da, elikadurako produktuak baliatu direlako Elikagaien Bankuari esker eta beste artikuluko batzuk erabili direlako Emausko Trapuketariei eta [www.yonolotiro.es](http://www.yonolotiro.es) webguneko aplikazioari esker.

Bildutako frakzio berreskuragarriek %1eko emendatzea baino handiagoa izan dute, paper-kartoi frakzioan izan ezik, edukiontzietatik lapurreta gehiago izan direnez, frakzio hori gutxitu egin baita pitin bat. Atal honetan, gai organikoen bilketan izan den %66,4ko emendatzea nabarmendu behar da, frakzio horren bilketa bereizirako bosgarren edukiontzia ezartzearen ondorioz. Bere aldetik, gainerako frakzioa, errefusarena, %2,6 gutxitu da.



Hondakinen berreskuratze indizea handitu egin da: %33koa izan zen 2015ean eta %35,3koa 2016an.






Halaber, 5. edukiontzia bidez bildutako gai organikoen 7.931 tonek, inaste eta lorezaintzako hondakinekin batera, eta etxebizitzetako eta auzoko konpostajearekin batera, sortutako biohondakinen %28,9ko berreskuratze portzentajea lortzeko bidea eman dute.

Alde horretatik, nabarmendu behar da Arazuriko HUAn jasotako eta ekoiztutako hondakin organiko guztiak birziklatu direla (33.729 tona lohi eta 8.568 tona hondakin berde). Lohien ekoizpena aurreko urteko bera izan da; tratatutako hondakin berdeen kantitatea, berriz, %6,26 gutxitu da, tokiko erakundeetatik jasotako kantitate txikiagoarengatik. Hondakin berde guztiak konpostatu dira eta araztegiak sortutako lohien zati bat (%20) tuneletan konpostatzeko plantan. Gainerako lohiak nekazaritzaren bidez birziklatu dira.

5.186 m<sup>3</sup> konpost merkaturatu dira, aurreko urtean baino %23,5 gutxiago. Beraz, krisi ekonomikoak eta produktu hau behar duten paisaia proiektu publikorik ez egoteak eragindako beherakadak jarraipena du, Bi ekoizpen linea sendotu dira (A klasea-begetala eta B klasea-begetala + lohiak).

Lohiak nekazaritzan aplikatzeari buruzko ikerketa saioak egiten jarraitzen dugu, INTIArekin izenpetutako hitzarmenaren arabera, HUako finka esperimentalean eta Murillo el Fruto herriko finka ureztatu batean. Horrez gain, proba edo saio berariazkoagoak egin dira lursail horietako lurzoruen alderdi mikrobiologikoei buruz, NEIKERekin.

Etxeko konpostajeari dagokionez, udaberriko kanpainaren eta 5. edukiontzia landa eremuan ezartzearen ondoren, nabarmendu behar da 3.000 familia baino gehiago direla birziklatze programa honetan izena emandakoak. Kopuru horri auzoko konpostajea egiteko dauden 32 guneak gehitu behar zaizkio, 714 familia biltzen dituztenak. Familien talde horren arabera, kalkulatu da urtean zehar 2.110 tona birziklatu direla. Informazioa emateko eta sentsibilizatzeko elementu gisa, konpostajearen gaineko lau buletin eman dira argitara, programa horietan parte hartzen duten pertsonentzat.




2016an, gai organikoak bereiz biltzea zabaltzen jarraitu da. Laugarren fasea izan da eta bilketa mota hori Mankomunitateko landa eremuetan hedatzea ekarri du. Zehazki, zabaltze horrek 11.016 etxebizitza hartu ditu barnean, 230 herritakoak, 8 eremutan multzokatuta. Ere horien ezaugarriek aukera eman dute etxeko eta auzoko konpostajea eskaintzeko gai organikoak tratatzeko era gisa. Dena den, 200 biztanletik gorako kasuetan, eskatu dutenetan, bosgarren edukiontzia ere instalatu da.

Azken fase honetan, etxebizitzak %38,5ek eman dute izena, eta, hartara, Iruñerri osoan izena emandako etxebizitzak %44,4 dira. Laugarren fase honen ondoren bukatutzat eman daiteke gai organikoen bilketa bereizia ezartzea. 2017ko Urteko Kudeaketa Planean, dena den, aurreikusita dago sentsibilizazio ekintza berriak egitea, lortutako emaitzak emendatzeko herritarren parte-hartze handiagoaren bidez.



Egun, frakzio honen tratamendua Caparrosen egiten da, HTNko biometanizazio plantan. Bertan, digestio anaerobioa egiten zaio, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinekin batera, eta biogasa sortzen da. Tratamenduan lortutako digeritua inguru horretako soro landuetan aplikatzen dute.


Azkenik, Gongorako HHTZn botatako hondakinen tonak gutxitu egin dira aurreko urtearen aldean, %2,2. Zehazki, 115.623 tona izan dira, eta horrek esan nahi du HHTZ ireki denetik erregistratu diren kantitate guztietan txikiena izan dela.





## Eskualdeko Hiri Garraioa

2016an garraiatutako bidaiarien behin-behineko kopurua 35.529.448koa izan zen, hau da, aurreko urtearen aldean, %4,3 handiagoa. Datu horrek berretsi egiten du bidaiarien kopuruaren bilakaeran 2015ean izan zen joera aldaketa.



Gertakari esanguratsu moduan aipatu behar da Transports Ciutat Comtal S.A. (TCC) sozietateak uztailean eskatu zuela 2017-2019 aldirako luzatzeko 2012-2016 aldirako ezarritako kontzesio kontratuaren aldaketa, kontzesioaren oreka ekonomikoa urratzeagatik. Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 29an egindako saioan, hitzartu zuen 2012-2016 aldirako ezarritako baldintza berberak luzatzea, hartan %35eko zigorra aplikatu baitzen jatorrizko kontratuko bidaiari konpromisoa ez betetzeagatik. Behin espediente hori ebatzita, 2017ko lehen hiruhilekoan, 2017-2018rako EHGa Plan berria bideratuko da.

Bestalde, aurten ia ez da aldaketa garrantzitsurik egon zerbitzuan. Irailaren 5etik aurrera 22. linea (Yanguas y Miranda-Berriogoti) 16. linean sartu dela (Aitzoain-Noain-Berriain) aipa daiteke. Aldaketak ahalbidetu du EHGa linea garrantzitsu horren zerbitzu ustiapena hobetzea.

Inbertsioekin lotuta, urtarrilean, 9 autobus artikulatu hasi ziren zerbitzua ematen, eta ekain eta urri artean beste 10 autobus estandar, 12 metrokoak. Haietako 5 teknologia hibridokoak dira. Horrenbestez, 2015 eta 2016 urteen artean, flotaren %20 berritu da, eta horrek aukera ematen du aurreko 2 urteetan berritze ezak eragin zuen eragina berdintzeko.

Ingurumenaren alderdian, flotak osotara dituen 140 ibilgailuetatik, 9 unitate (%6) jada teknologia hibridokoak dira. Teknologia hori erabiltzen ari garenetik urtebete baino gehixeago joan den honetan, diesel teknologia konbentzionalarekin alderatuta, erregaiaren %26,5 aurrezteak lortu da. Martxan dauden proiektu nagusiei dagokienez, "EHGa Sare Berriari" zegokiona berriro formulatu da, urteko lehen seihilekoan gauzatutako jarduketan arabera, "Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorrekoko Plana egitea (IHMIP)" izenekora. Helburu horrekin, irailaren 22an lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten EHGa eremuko udalek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Mankomunitateak, hartara, Mankomunitatea izan dadin, beste 19 administrazioekin koordinatuta, IHMIP hori egingo duena. Horretarako, laguntza teknikoa kontratatatu du. Abenduan hasi zen lanean eta uste da 2018aren amaieran bukatuko duela. Horrez gain, garrantzi handiko parte-hartze plan bat jarri nahi da abian eta garraio publikoko ardatz nagusien sarearen bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin nahi da.

Garraioa ordaintzeko eta txartelak kargatzeko era berrien proiektuan, aukeren analisi zehatza egin da, EHGa ordaintzeko bidearen egungo egoerara egokitzearena eta hurrengo pausoen proposamena. Lan hori, hain zuzen, Batzorde Iraunkorrek 2016ko abenduaren 20an egin zuen saioan aurkeztutako txosten batean bildu zen. Modu gehigarrian, uztailean, hitzarmen bat izenpetu zen Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko Departamentuarekin, etorkizuneko Nafarroako Garraio Txartel Bakarraren datuen egitura zehazteko aukera emango duten laguntza lanak eta haiei lotutako prozedurak garatzeko. Lan horiek Nafarroako Gobernuak kontratatatu ditu eta bi administrazioen artean ari dira finantzatzen.





**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

Eskualdeko Hiri Garraioko etorkizuneko garajeak kokatzea aurreikusita dagoen lursailari dagokionez, eskatu zaio Iruñeko Udalari indarrean dagoen hirigintza plangintza betetzeko sistema ordeztuko eta gauzatze publikoko sistema bat jartzeko martxan.

Azkenik, adierazi behar da Batzorde Iraunkorrek azaroaren 30ean egin zuen saioan EHGo eta taxiko geralekuetan hiri altzarien kontzesio berria enkantean hartzeko eskaintza onartu zuela. Hartara, egungo kontratua ordeztuko du, 2017ko apirilaren 30ean bukatuko dena.

### Taxi zerbitzua

2016an, zerbitzuaren erabileran zegoen beheranzko bilakaera aldatu egin zen: azken neurketan, 2013an, erregistratutako asteko 32.375 ibilaldietatik 2016ko 34.386 ibilaldietara igaro da, eta horrek esan nahi du %6,2 handitu dela. Gehitu behar da 2016 honetan aurreko urteko tarifari eutsi zaiela.

Beste alde batetik, Administrazioarekiko Auzietako 2. zenbakiko Epaitegiak ezezkoa eman zion Mankomunitateak ezarri zuen helegiteari, taxiaren arloan Mankomunitateak Etxauriko Udalarekin zuen hitzarmenari zegokionez, Nafarroako Administrazio Auzitegiak eman zituen ebazpenen kontra. Mankomunitateak gora jotzeko helegitea aurkeztu zuen, baina, azkenean eta Mankomunitateko lehendakariaren ebazpenaren bidez, erabaki zen aipatutako helegiteari uko egitea.

Aipatu beharreko gertakari moduan, ekainean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Taxiari buruzko 9/2005 Foru Legea, uztailaren 6koa, aldatzeko foru lege proposamen bat argitaratu zen. Hain zuzen, proposatzen da 48. artikulua ("Udalen arteko koordinazioa. Baterako zerbitzurako eremuak") berriro idaztea. Foru legearen proposamen hori izapideak bideratzeko prozesuan dago.



IM-SCPSAren berrikuntza proiektuen barnean, beste administrazio batzuek sustatutako eskaeraren araberako taxi zerbitzu erregularretan ordainketa kudeatzean EHGaren garraio txartela erabiltzeko konponbide bat diseinatu da. Hasierako akordio batera iritsi da pilotu proba bat egiteko, taxi gidarien elkartearen, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Aranguren Ibarreko Udalaren artean (eskaeraren araberako taxi zerbitzu erregularra duen udalerrietako bat). Hiru aldeen arteko lankidetzeta hitzarmen batean berresteko zain dago.


Beste alde batetik, taxien zerbitzua hobetzeko planaren barnean, taxiaren arloko ordezkariekin lanean aritu gara eta 2017rako aurrekontuan hainbat diru-laguntza sartu dira, arloko segurtasuna hobetzera, mugikortasun murriztuko pertsonen eurotaxien zerbitzua ematera eta ibilgailu ekologikoak (ekotaxiak) erostera bideratutakoak. Era berean, administrazio desberdinekin lan egin da, taxia erabiltzea sustatzeko, eskaeraren araberako garraio gisa.

2016 honetan ere Mankomunitatea elkarlanean aritu da Nafarroako Gobernuarekin, polizien gorputz desberdinekin batera, Nafarroan taxiak ikuskatzeko III. kanpaina egin baitu, irailaren 16a eta 18a eta 23a eta 25a artean. Mankomunitatearen kasuan, 8 zehapen-espeditente abiarazi zaizkie titularrei edo soldatapeko langileei, eta 5 zehapen-espeditente, gaitzen duen titulurik gabe, zerbitzua ematen ari ziren pertsonen.


Azkenik, apirilean taxi gidari profesionalaren baimena lortzeko proben 11. edizioa egin zen. 58 eskaera onartu ziren eta 35 eskatzailek lortu zuten baimen hori.

### Herritarren Arretarako Zerbitzua


2015eko datuekin alderatuta, beherantz egin du bai jasotako deien kopuruak bai eta HAZen aurrez aurre arreta emandako pertsonen kopuruak ere. Izan ere, 2015ean, EHGko F gizarte tarifa eta 30 eguneko abonua (abonu orokorra, gazteentzako eta familia ugarietzako) martxan jarri ziren eta emandako arreta kopuruak gora egin zuen nabarmen.



Jasotako deien gainean arreta emandako deien adierazlea balio handietan egonkor dago: %88,52koa izan da 2016ko ekitaldian.




Epearen barnean konpondutako eskaeren portzentajea oso ona izan da: %93koa izatera iritsi da.



## 2. ARDATZA. FINANTZAK: Ekonomia eta finantza egonkortasuna lortzea.


Uraren Ziklo Integralaren fakturazio nominala aurreko urtekoaren ia bera izan da, %0,35 handiagoa. Uraren Ziklo Integraleko kontzeptu nagusien fakturazioa, 2016an, 25.058.930 eurokoa izan da, indarrean dauden 168.149 kontratuei dagokiena.

### UZiren fakturazioa: horn. kuota aldak.+ horn.+san.+suteak kuota fink.






Bere aldetik, hondakinen fakturazioa, 2016an, 22.693.512 eurokoa izan da, aurreko urtekoaren oso antzekoa eta tarifei eustearen ildotik, kontuan izanik katastroko balioaren arabera kalkulatzeko dela eta ez sortutako hondakinen arabera. 2016a amaitzean, zerbitzu honen 184.384 kontratu daude.



**Garraioari** dagokionez, bidaiariengatik diru-sarrera garbien behin-behineko estimazioa edo zenbatespena (BEZa gabe) tarifa guztietarako aldi honetan –hau ere doitzeko dago urte batean saltzen diren eta eskubideen epea hurrengo urtean amaitzen zaien aldi baterako abonuegatiko diru-sarreraren periodifikatzeagatik– 17.626.995 eurokoa da, hau da, aurreko urtean baino %1,3 txikiagoa.




2015ean abian jarritako tarifa berrien erabilera handitu izana nabarmendu behar da. Izan ere, bidaiari guztietan aldi baterako abonuekin egindako bidaiak %14,4 izan ziren eta F gizarte tarifa erabilita (gizartetik baztertuta gelditzeko arriskua dutenentzat) bidaiaren %7,5 egin ziren. 2016 honetan, guztira, aldi baterako 78.036 abonuek diru-sarrera garbiak (BEZa gabe), periodifikatzeagatik doitzeak kenduta, 1.858.154 eurokoak izan dira. Hori diru-bilketaren %10,5 da.

Gehitu behar da 2016an tarifei eutsi zaiela eta bidaiari kopuru handiagoarengatik diru-sarrera emendatzea progresiboki balio gabetu dutela bidaiariengatik batez besteko diru-sarrera txikiagoek (2015eko lehen seihilekoan tarifa merkeagoak sartzeagatik). Jarraian dagoen grafikoan, bidaiariaren kopuruak eta tarifaren batez besteko prezioak (batez besteko diru-sarrera + BEZa) azken urteetan izan duen bilakaera ageri da.




Bidaia kop. eta batez  
besteko prezioa



Energia elektrikoa saltzeagatiko fakturazioari dagokionez, diru-sarrerak 1.283.381 eurokoak izan dira, 2015ekoak baino %8,29 gutxiago (1.399.431 euro), saldutako kWh-en beherakadaren ildotik.

Energia saltzeagatiko diru-sarrerak




Adierazle ekonomiko nagusien analisia martxoan egingo da, urteko kontuak ixten direnean.


### 3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ANTOLAKETA: Erakunde kohesionatua, motibatua eta malgua garatzea.

SCPSAren plantilla 2016ko abenduan 464 pertsonakoa da. Aurreko urtekoa baino handiagoa da (aurreko urtean joera aldaketa izan zen aurreko lau ekitaldiekiko). 2016an, eta Aurrekontuen Lege Orokorrak araututakoaren arabera, 12 kontratu mugagabe egin ziren eta 11 erretiro partzial erraztu ziren. Urtea amaitzean, erretiro partzialari erantzuteko aldi baterako errelebo kontratuen kopurua 16koa zen.

Beste alde batetik, eta lege horren beraren arabera, langileen soldatak eguneratu ziren %1 emendatuta.



Absentismoaren balioak handitu egin dira: absentismo orokorra %6,38koa izatera iritsi da eta gaixotasun arruntarengatikoa %4,92koa. Azken hori izan da absentismo orokorra handitzean eragin handiena izan duena. Emendatze hori, neurri handi batean, iraupen luzeko zenbait baja egotearekin lotzen da.



Laneko harremanen esparruan, nabarmendu behar da hitzarmen kolektiboa negoziatzeko 2016an egindako prozesua. Negoziazio batzordea maiatzaren 6an eratu zen, eta, hainbat bileraren ondotik, enpresako zuzendaritzaren eta langile guztien ordezkarien arteko aurreakordioa lortu zen irailaren 23an. Ondoren, behin betiko testua idatzi zen eta aurretik hitzartutako zenbait gaitarako beharrezkoak diren xehetasun operatiboak zehaztu diren. Azkenean, abenduaren 23an, eraginkortasun orokorreko hitzarmen kolektiboa sinatu zuten zuzendaritzak eta langileen ordezkartzaren gehiengoak (%53), 4 urteko indarraldiarekin (2017-2020). SCPSAko Administrazio Kontseiluak hitzarmen kolektiboa onartu zuen abenduaren 29an egin zuen saioan.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko kotizazio-bilketa sistema berrira egokitzea ere egin da, eta langileen lanaldiak kudeatzeko aplikazio berria garatu da.

Giza baliabideak garatzeko proiektuei dagokienez, zuzendaritzako batzordearen lidergoa eta funtzionamendua hobetzeko ekimenak gauzatzen jarraitu da eta bai barne komunikazioa sustatzeko ekimenak ere, ulertzen baita erronka estrategikoetan aurrera egiteko funtsezko bi palanka direla.



Halaber, 2014an langileen gogobetetasuna aztertzeko egin zen inkestako emaitzetatik abitutako analisitik eratorritako hobekuntzak lantzen aritu gara, pertsonen konpromisoa, profesionaltasuna eta gogobetetasuna bultzatzeko. Urteko azken lauhilekoan, berriro egin da langileen gogobetetasuna ezagutzeko inkesta, 2016koa, eta langileen %51k eman dituzte erantzunak. Lortutako emaitzek berresten dute bilakaera positiboa neurtutako ia faktore guztietan, eta nabarmendu behar da gogobetetasun globalaren datua: 2016an %64koa izan da eta 2014an %57koa izan zen.

Laneko segurtasunaren ikuspegitik, 2016an, baja eragin duten 19 istripu izan dira (barnean hartuta berriz gaixotzeak eta *in itinere* istripuak) eta baxarik gabeko 22 istripu.

Gehitu behar da prebentzio plan berri bat onartu dela, enpresako maila guztietan zabalkundea eman zaiona. Plan horretan aurreikusitako laneko osasun eta prebentzio ildoak hedatzeko, ekimen hauek gauzatu dira:

- Prebentzio zerbitzuan teknikari berri bat hasi da lanean, tokian bertan presentzia handitzeko arriskuen ebaluazio, gainbegiratze, kontrol, informazio eta prestakuntza lanetan.
- Arriskuen ebaluazio orokorra berrikusten amaitu da eta Langileen Atarian kaleratu da, zabalkundea emateko langileen artean.
- Enpresa Jarduerak Koordinatzeko prozedura ezarri da, kanpoko prebentzioko zerbitzu baten kontura.
- Kanpoko prebentzio zerbitzu bat kontratatu da, industria higieneko kontrolak eta jarraipenak egiteko.

Beste alde batetik, mediku azterketen urteroko kanpaina egin da, emaitzak aski onak izan dira eta langileen %85ek parte hartu dute. Egokiak diren azterketa epidemiologikoak egin dira, eta ez da gaitzez emaitza adierazgarririk ikusi, ez langileen artean, oro har, ez eta modu partzalean ere, lantokien eta berariazko arriskuen arabera.

Amaitzeko, adierazi behar da osasuna sustatzeko hainbat ikastaro egin direla eta, bihotza zaintzeko planaren esparruan, 5 desfibriladore kokatu direla Navas de Tolosa kaleko, Chinchilla Jeneralaren kaleko, Julian Arteaga kaleko, Arazuriko eta Gongorako zentroetan. Haiek erabiltzen ikasteko prestakuntza ere eman da.

Antolaketako ekimenei dagokienez, 2017-2030 aldirako IM-SCPSAren Plan Estrategiko berria egin da. Bai analisisa egiteko prozesuan, bai eta proposamenak egitekoan ere 50 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten, zenbait taldetan antolatuta. Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak urriaren 27an onartu zuen plan estrategiko hori.

Beste alde batetik, "Business Intelligenceren" proiektua lantzen jarraitu da, enpresako adierazleen kudeaketa automatizatuagoa, integratuagoa eta fidagarriagoa lortzeko. Hain zuzen ere, garraioko proiektu pilotua (ordainbidea) amaitu zen eta emaitzak aski onak izan ziren. Bezeroen arlokoa hasi da. Modu osagarrian, Berrikuntza Sailak egungo adierazle guztiak bildu ditu, berehalakoan diren eskaerei erantzuteko, adierazle horiek berrikustea eta egokitzea lantzeko.

Azkenik, proiektuak kudeatzeko metodologia bat garatu da, behin egokituta, progresiboki hedatu behar dena, enpresako proiektu guztietan baliatzeko.



#### 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA: Eraginkortasuna handitzea eguneroko kudeaketan, iraunkorra eta berritzailea.

##### Eraginkortasuna

Eraginkortasuna hobetzea xede duten zenbait ekimen daude, teknologia eta lan egiteko modu berriak bateratzearen bidez, eta 2016an aurrerabide dezentea izan dutenak. Hauek nabarmentzen dira:

- Saneamenduko laborategian, kudeaketako aplikazioa ezartzea.
- Aktiboen kudeaketako aplikazioa ezartzea Sareen eta Instalazioen Mantentze zentroan.
- Administrazio elektronikoa indartzea, herritarren esku jartzeko zerbitzu telematikoko berriak eta, erakundearen barnean, espediente elektronikoa ezartzeko.
- Horniduraren Kalitate Kontrolleko GIS beharrak aztertu eta zehaztea.
- Sartzea eta presentzia kontrolatzeko sistema berri bat diseinatu eta planifikatzea.
- Erosketak kudeatzeko sistema berri bat diseinatu eta planifikatzea.

##### Berrikuntza

2016an, berrikuntzaren arloko jarduerak urte osorako UKPan aurreikusitakoaren arabera egin dira, hari egokituta.

Langileek aurkeztu ahal izateko barne iradokizunen IDÉATE programaren balantzea (abenduaren 31n) hau da:

2015*-2016KO IDÉATE PROGRAMAKO IRADOKIZUNAK		2015	2016
AURKEZTUTAKOAK	%100	96	55
ONARTUTAKOAK	%77,1	74	38
ONTZAT EMANDAKOAK	%29,1	28	11

\*2015ean, ekainetik.

Ontzat emandako iradokizun guztietatik 14 ezarri dira.

Nabarmendu behar da apirilean SCPSAko langile guztiek izan zutela aukera 2015ean ontzat emandako iradokizunen artean bi onenak aukeratu eta bozkatzeko.

IM-SCPSAko berrikuntzaren arloan abiarazitako 10 proiektuei dagokienez (5 2015ean eta beste 5 2016an), bilakaera hau da:





**BERRIKUNTZA PROIEKTUAREN GARAPEN FASEEN BILAKAERA**

KODEA	PROIKETUA	EDUKIA	BURUTAPENA EGITEA	BURURATZEA	DISEINATZEA	P. PILOTUA	GAUZATZEA	EBALUATZEA	ZABALTZEA
PINN15-01	Red-CONOCIENDO	Sailen arteko ezagutza bultzatzea, SCPSAko langileen artean							
PINN15-02	WIFI-BUS	Wifia ezartzea balio erantsiarekin billabesetan							
PINN15-03	ACÉRCATE	Taxia erabiltzea joan-etorrietarako, Iruñerriko ingurune sakabanatuetan							
PINN15-04	OPINIÓN	Herritarren iritzia jasotzeko bide eta metodo berriak							
PINN15-05	EXTRUVITA	Fosforoa-nutrientiak berreskuratzea Arazuriko HUAn							
PINN16-01	INTER-FÓRMATE	IM-SCPSAren hurbileko arloetako enpresetan egonaldi profesionalak edo trukeak ahalbidetzea							
PINN16-02	MOVIL-CLIENTES	Plataforma MUGIKORRA bezeroentzat							
PINN16-03	DRONES-BIOGÁS	Zabortegean biogas igorpenak ebaluatzeko sistema							
PINN16-04	ENERGÍA	Baliabideak eta energia sortzea optimizatzea IM-SCPSAn							
PINN16-05	CPI	Erosketa Publiko Berritzailea martxan jartzea							



Enpresekin lankidetzan gauzatu beharreko berrikuntzako proiektuak direla-eta, Gongorako zabortegiko biogasa arazteari dagokionak (ibilgailuetan baliatzeko biometanoa lortzeko) operazio fasea ekainaren 3an amaitu zuen eta dagokion ondorioen txostena egin zen. Garapena ongi joan da eta pozik gaude.

Azaroaren 3an, biogasa arazteko bigarren proiektu pilotua jarri zen martxan, kasu honetan Arazuriko HUAko digestiotik datorrenarekin. Abenduaren 19tik aurrera, ibilgailuetarako biometanoz hornitzen hasi ziren hiriko autobus bat eta hondakinetako/inauste hondakinetako bi kamioi. 2017ko maiatzean amaituko da proiektua.

Beste alde batetik, Antsoainen hornidurako hoditerietako aprobeixamendu termikoa egiteko proiektu pilotua moteldu egin da eta ez egindakotzat jo daiteke; izan ere, martxan jartzeko epea amaitu da eta enpresa sustatzailearen eta Udalaren artean hura garatzeko akordioak ez du fruiturik eman.

Azkenik, IM-SCPSA kolaboratzaile ari den Europa mailako bi proiektuak –GEO-SMART CITY proiektua, Tracasa buru duela, eta LIFE+ RESPIRA proiektua, Nafarroako Unibertsitatea buru duela– aurreikusitakoaren arabera ari dira aurrera egiten.

### Estrategia energetikoa eta klima aldaketa

Urteko emaitza moduan adierazi behar da IM-SCPSAk 2015ari zegokion karbono aztarna kalkulatu eta zertifikatu zuela, eta emaitza gisa berotegi efektuko gasen igorpenen ebaluazioa eman zuela.

BEROTEGI EFEKTUKO GASEN IGORPENAK 2015EAN		
JARDUERA	tCO <sub>2</sub> baliokide	%
IM ETA SCPSA-REN JARDUERA OSOA	54.777,3	%100,0

Uraren Ziklo Integrala	4.034,5	%7,4
Eskualdeko Hiri Garraioa	14.201,3	%25,9
Hondakinen bilketa eta tratamendua	36.541,5	%66,7

2016ko bigarren seihilekoan, arlo honetan egin diren aurrerapenak hauek izan dira:


Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2017-2030 aldirako IM-SCPSAren Plan Estrategikoa onartu zuen urriaren 27an, eta bertan jasota dago Mankomunitatea “karbonoari dagokionez, 2030ean neutroa” izateko helburua.

Aldi berean, ekimen horrekin bat datozen jarduketak gauzatu dira, hala nola autobus hibrido berriak sartzea flotan eta SCPSAk erosten duen energia elektriko guztia iturri berriztagarritik abiatuta lortutakoa izatea. Horrez gain, aurretiazko azterlan bat egin da Ibai Parkeko baso masa igorpenen hustuleku moduan zenbatu ahal izateko aukera aztertzeko.


SCPSAren auditoretza energetikoa egin da bere instalazioen ebaluazio integrala eginda, ekintza plana eta ezarritako epearen barnean Erregistro Nazionalen izena emanda.

IM-SCPSArako epe luzerako Estrategia energetikoa eta klima aldaketakoa idazten hasi behar da, azken hilabeteetan lortu den informazioarekin eta hartu diren erabakiekin elikatu ahal izango dena.


Energia ekoiztearekin lotuta, ekoiztutako energia berriztagarri guztia 50.077.523 kWh-koa izan da, 2015ean baino pitin bat gehiago. Jatorri hidraulikotik eta biogasetik sortutako energia elektrikoak grafikoan erakusten den bilakaera eduki du:



Jatorri hidraulikoko energia elektrikoa ekoiztea pixka bat gutxitu da, prezipitazioak gutxitu izanaren ildotik. Izan ere, Eugin 1.258 mm-koa izan da, aurreko urtekoa (1.565 mm) eta batez besteko historikoa (1.626 mm) baino txikiagoa.




Biogas zentralei dagokienez, energia ekoizpena ia egonkor egon da: %1,65 emendatu da Arazuriko HUAN eta %0,12 gutxitu da Gongorako HHTZn, zabortegeitik zetorren biogasarekin kogenerazioa martxan jarri zelako Gongoran joan den urtean izan zen hazkunde handiaren ondoren.



HUAN auto hornikuntza elektrikoa %97koa izan da, aurreko urtean baino %3 handiagoa, Gongorako HHTZn, %603,8koa, aurreko urtean baino %5,3 handiagoa.

## 5. ARDATZA. GIZARTEA ETA ALIANTZAK: Konfiantza eta elkarlana handitzea interes talde desberdinekin.

Ingurumen Heziketako Programa gizartearekin komunikatzeko eta iraunkortasun mezuak adierazi eta igortzeko dugun bektore handietako bat da. 2015-2016 ikasturtean, 41.265 pertsonak parte hartu zuten Ingurumen Heziketako Programan, eta haietatik 37.585ek ikastetxeetarako programan esku hartu zuten. Emaitza horiek aurreko urteko antzeko kopuruak utzi dituzte: pitin bat emendatu da kopurua, nahiz eta segurtasun arrazoiengatik oraindik ere itxita dagoen Artetako Informazio Zentroa.






Eskola programaren barnean, egin ziren 1.736 jardueretatik eskari gehien izan zutenak hondakinen eta Uraren Ziklo Integralaren arloetakoak izan ziren. Bertaratutakoen %56 izan ziren bi horietan, eta haien ondotik ibai parkearen arloa eta Eskualdeko Hiri Garraioa eta mugikortasun iraunkorrekoa etorri ziren.

Hizkuntzen arabera, jardueren %67 gaztelaniaz egin zituzten, %27 euskaraz eta %6 ingelesez. Aurreko urteko kopuruaren oso antzekoak dira horiek, pitin bat emendatu dira gaztelaniaz egindakoak eta pixka bat gutxitu euskaraz eta ingelesez egindakoak. Edonola ere, bertaratutako pertsonen kopuruaren arabera, hizkuntza guztietan izan da hazkundera: %5 gaztelanian, %2 ingelesean eta %0,7 euskaraz.

Sareko edo *on line* komunikazioari dagokionez, bisita gehien izan dituzten bi webguneak mcp.es eta Eskualdeko Hiri Garraioko zerbitzuaren denbora errealeko informazioa ematen duena (infotuc.es) izan dira. Azken horrek erritmo jarraituan hazten jarraitzen du eta mcp.es webgunean erabiltzaileen kopuru osoa murriztu da, beharbada garraioko webguneak izan duen emendatzearengatik.



Urte hasieran, gardentasun webgunea aurkeztu zen. Erabiltzaileen kopurua dela-eta, oso emaitza neurritsuak izan ditu: urte osoan 796.

Sare sozialei dagokienez, Twitterreko kontuak (*MCP\_info*) 1.965 jarraitzaile zituen urte amaieran. Hain zuzen ere, informazio erabilgarria eskaintzen du erakundearen zerbitzuei eta jardueri buruz, eta herritarrei arreta emateko bide gisa funtzionatzen du, erabiltzaileen kontsultei, iradokizunei eta erreklamazioei erantzuten diena.

Infotuc-eko maiztasunen eta ibilbideen informazioari dagokionez, azken gogobetetasun inkestako emaitzen aurrerapenaren arabera, erabiltzaileen %38k kontsultatu dute webgunean Eskualdeko Hiri Garraioari buruzko informazioa, ibilbideak, ordutegiak, gorabeherak eta abar. Haietatik %88ri iruditu zitzaien erabiltzen erraza dela, eta haien %71k uste dute fidagarria dela, nahiko zehaztasunarekin, ordutegiei buruzko informazioa, eta %23 uste dute fidagarria dela zenbait bidaiatan. Datu horiek erakusten dute nabarmen handitu dela webgunean eskaintzen den informazioa fidagarria dela usten duten pertsonen portzentajea.

Beste alde batetik, "Tu Villavesa" aplikazioa dela-eta (zerbitzuaren informazioa ematen du denbora errealean), 153.815 deskarga erregistratu dira (122.413 Android sistemarako eta 31.404 iOSerako). Beraz, 2015aren aldean, %25 gehiago dira eta berretsi egiten du deskargen kopuruaren hazkundera jarraitua, bereziki Android sistema eragilean.


Gogobetetasun inkestaren lehen emaitzen arabera, Eskualdeko Hiri Garraioko erabiltzaileen %58k (telefono adimenduna eduki edo ez) Tu Villavesa aplikazioaren berri dute. Kontsultatzen dutenen artean, %57k uste dute fidagarria dela nahiko zehaztasunarekin eta %33k uste dute fidagarria dela bidaia batzuetan bakarrik. Ezagutzen dutenen kopurua handitu da eta bere fidagarritasunaren balorazioak antzeko kopuruetan gelditu dira.

Beste alde batetik, 2016ko ekainean, sentsibilizazio jardueren webgunearen bertsio berrikusia eta eguneratua jarri zen martxan eta [www.mcp.es](http://www.mcp.es) erakunde webgunean sartuta gelditu da.



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.



2016an, martxan jarri zen “Boletín MCP – IMren buletina”, Iruñerriko udaletarako eta IM-SCPSAko langileentzat. Bertan, hilero, Batzorde Iraunkorak eta Administrazio Kontseiluak hartutako akordioen informazioa eta erakundearen albiste garrantzitsuenak ematen dira argitara.

Egindako azterlanak direla-eta, 2016an, Eskualdeko Hiri Garraioko erabiltzaileen gogobetetasun inkesta, taxiaren arloko eskaera eta gogobetetasun azterlana, IM-SCPSAko langileen gogobetetasun inkesta eta hondakinen osaerari buruzko hiruhilekoko analisia egin ziren.

2016an egindako informazio ekintza bereziei dagokienez, nabarmentzekoa da gai organikoak biltzeko 5. edukiontzia ezartzeko laugarren fasea (11.016 etxebizitzari zuzendutakoa). Haren ondotik, 2013tik metatuta, %44,4ko izen-emate kopurua erregistratu da. Fase hori eginda amaituta gelditu da Iruñerri osoan gai organikoen biltzea eta tratamendu berezia ezartzea, 5. edukiontzia eta etxe eta auzoko konpostajearen bidez. Kanpaina 2013an hasi zenetik, guztira, 153.786 etxebizitzari zuzendu zaie.



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

Era berean, nabarmentzekoa da saneamenduaren erabilera egokiari buruz egindako kanpaina, bereziki paper-zapi bustiei dagokiena. Kanpaina hori NILSA enpresa publikoarekin elkarlanean egin da eta harekin batera finantzatu, izan ere aurreikusita baitago 2017an Nafarroa osora zabaltzea.

Ekintza adierazgarrietako beste bat “KulturBus” kanpaina izan zen, bere iraupen eta garrantziarengatik, bigarren edizioa 2016 osoan gauzatu baita. Nafarroako Fundazioen Elkarteak sustatu du ekimen hori, eta, besteak beste, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Transports Ciutat Comtal enpresaren lankidetzak eduki du.

## **6. ARDATZA. MANKOMUNITATEAREN ETORKIZUNA: Iruñerrian zerbitzuak emateko esparru berri bat sendotzea, eredu erkidetuak sustatuta.**

2017-2030 aldirako IM-SCPSaren Plan Estrategikoak (Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2016ko urriaren 27an onartu zuen), lehen ardatz moduan, erakunde esparruari dagokiona jasotzen du. Hain zuzen ere, ulertzen da Iruñean eta Iruñerrian zerbitzuak emateko eredu erkidetuak erakutsi duela eraginkorra dela konponbide teknikoak eta ingurumenekoak ematean, zerbitzuaren kalitate handia bermatzen duela eta bere esku dauden baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen dituela.

Ikuspegi horretatik, erakundeko zenbait langilek, beren kabuz eta hala nahi izan dutelako, Nafarroako Gobernuak sustatzen ari den tokiko maparen erreformaren proiektuarekin zerikusia duten adituen bilera batzuetan parte hartu dute (proiektu horrek 2017an izango du garapena).

Horri dagokionez, aipatu den plan estrategiko horrek jasotzen du ezarritako plangintzaren oinarria dela erakundearen funtzionamenduko 35 urte hauetan sendotutako eskala ekonomia eta sinergia guztiak baliatzea, aintzat hartuta IMren konfigurazioan egin daitekeen egiturazko edozein aldaketak arriskuan jar dezakeela epe luzerako plangintza honen bideragarritasuna.





## 2. 2016KO URTEKO KUDEAKETA PLANEN BILAKAERA

Jarraian, 2016ko Urteko Kudeaketa Planeko proiektuen zerrenda eta haien betetze portzentajea ageri dira.

Txostenaren hurrengo orrialdeetan, proiektu bakoitza zehazten da, gauzatu diren jarduketan informazio zehatza emanda.

	I.- ERAKUNDEKO PROIEKTUAK	BETETZE PORTZENTAJEA
1.	Berrikuntza Plana	100
2.	IM-SCPSAren estrategia energetikoa	68
3.	Enpresa-aktiboen kudeaketa	83
4.	Administrazio elektronikoa	61
5.	Kudeaketa eredu korporatiboa	87
6.	Lidergoaren garapena	82
7.	Laneko harremanetarako esparru berria	100
8.	Erosketak kudeatzeko sistema berria	100
9.	Egoitza berria	83
	II.- ARLO TEKNIKOKO ETA UZI-KO PROIEKTUAK	
10.	SCPSAko obren plana	59
11.	Uraren Segurtasunerako Plana: III. fasea - Tratamendua Urtasungo EUTEn	93
12.	SCPSAren egituren patologien analisisa - Egiturak Kudeatzeko Sistema	60
13.	Ibai Parkea handitzea	70
	III.- HONDAKINEN ARLOKO PROIEKTUAK	
14.	Gai organikoak tratatzeko plana	20
15.	Gainerakoien frakzioa tratatzeko plana	13
	IV.- ESKUALDEKO HIRI GARRAIOKO PROIEKTUAK	
16.	EHGrako plan berria	74
17.	EHGaren sare berria / IHMIPa egitea	100
18.	EHGaren garajeak	35
19.	Hiri altzariak EHGaren geralekuetan	90
20.	Garraioa ordaintzeko eta txartelak kargatzeko era berriak	100
21.	Taxia dentsitate txikiko eremuetan	100
	BALORAZIO OSOA	75



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 1. ZK. Berrikuntza Plana	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.3. ERRONKA. Berrikuntza eta teknologia sustatzea.
<b>XEDEA</b>	Berrikuntzarako prozedura sistematiko bati eustea IM-SCPSAn, gure zerbitzuak herritarrei ematean hobetzeko ekimenak aurkezteko, gure barne funtzionamendua hobetzeko eta baterako intereseko berrikuntza alorretan beste batzuekin elkarlanean aritzeko balioko duena.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	Ekitaldian zehar eta gauzatzeko etapa desberdinetan, berrikuntzako proiektu hauek egitea ezarrita dauden bideen esparruan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Idéate: 5 proiektu.</li> <li>• SCPSAko Berrikuntza Proiektuak: 5 proiektu.</li> <li>• Proiektu pilotuak beste batzuekin: 2 proiektu.</li> <li>• Nazioko/Europako proiektuak: proiektu 1.</li> </ul>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Barne iradokizunetarako IDÉATE programa.</b> 41 iradokizun aurkeztu dira aurrean, 36 onartu dira, eta osorik edo zati batean 13 ezarri dira.</li> <li>• <b>Berrikuntzako barne proiektuak.</b> Abian jarritako 10 proiektuak aurrera doaz garapen fase desberdinetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2015eko 5 proiektuak: 'Langileen arteko harremana', 'Wifia balio gehigarriarekin billabesetan', 'Mugikortasun publikoa Iruñerriko eremu sakabanatuetan', 'Estruvita berreskuratzea HUAN' eta 'Herritarren iritzia biltzeko sistema berria'.</li> <li>- 2016an planteatutako 5ak: "Trukea eta egonaldi profesionalak beste enpresa batzuetan", "Plataforma mugikorra bezeroentzat", "Zabortegiko biogas igorpenen balorazioa", "Baliabideak eta energia sortzea optimizatzea IM-SCPSAn" eta "Erosketa publiko berritzailea abian jartzea".</li> </ul> </li> <li>• <b>Bi berrikuntza proiektu, enprekin elkarlanean arituta.</b> Biometanoa lortzeko Gongorako zabortegiko biogasa arazteari dagokionez, fase operatiboa ekainaren 3an amaitu zuen eta ondorioen txostena idatzi zen. Garapena aski ona izan da. Azaroaren 3an, biogasa arazteko bigarren proiektu pilotua jarri zen martxan, kasu honetan Arzuriko HUAko digestiotik datorrenarekin. Abenduaren 19tik aurrera, ibilgailuetarako biometanoz hornitzen hasi ziren hiriko autobus bat eta hondakinetako/inauste hondakinetako bi kamioi. 2017ko maiatzean amaituko da proiektua. Beste alde batetik, Antsoainen hornidurako hoditerietako aprobetxamendu termikoa egiteko proiektu pilotua moteldu egin da eta ez egindakotzat jo daiteke; izan ere, martxan jartzeko epea amaitu da eta enpresa sustatzailearen eta Udalaren artean hura garatzeko akordioak ez du fruiturik eman.</li> <li>• Azkenik, IM-SCPSA kolaboratzaile ari den <b>Europa mailako bi proiektuak</b> –GEO-SMART CITY proiektua, Tracasa buru duela, eta LIFE+ RESPIRA proiektua, Nafarroako Unibertsitatea buru duela– aurreikusitakoaren arabera ari dira aurrera egiten.</li> </ul> <p><b>Betetze portzentajea: %100</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Álvaro Miranda, Berrikuntzako eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	42.000 euro, proiektuetarako gastuetan. 10.000 euro, laguntza teknikoan.
<b>OHARRAK</b>	2013-2016 urteetarako proiektua.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 2. ZK. IM-SCPSAren estrategia energetikoa	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA.KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.2. ERRONKA. Ingurumena integratzea sustatzea, ematen ditugun zerbitzuen berezko faktore gisa. 4.3. ERRONKA. Berrikuntza eta teknologia sustatzea.
<b>XEDEA</b>	Gobernu organoek ezartzen duten epean, Mankomunitatearen karbono neutraltasuna eta IM-SCPSAren %100eko iraunkortasuna lortzea, erregai fosilen mende ez egonda.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	IM-SCPSAren %100eko Iraunkortasunerako Trantsizio Plana idatzi eta onartzea. Hauek hartuko ditu barnean. 1. Plantetako eraginkortasunarekin eta aprobetxamendu energetikoarekin lotutako alderdiak. 2. Hondakinen ikuspegi energetikoa eta ingurumenekoa, baliabidetzat hartuta. 3. EHGaren, hiri hondakinen eta erakundearen beraren flotetan gasolioa erregai gisa kentzea eta eraldaketak egitea.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	SCPSAren auditoretza energetikoa egin da, instalazioen ebaluazio integrala eginda, ekintza plana eta ezarritako epearen barnean Erregistro Nazionalean izena emanda. Oro har, arlo honetan, esan daiteke 2016a trantsizio urtea eta gauzak argitzekoa izan dela gai honetan. Alde batetik, Batzar Nagusiak onartutako IM-SCPSArako Plan Estrategikoak erakunde, karbonoari dagokionez, 2030erako neutroa izateko helburua jaso du. Aldi berean, nabarmen egin da aurrera biogaseko proiektu pilotuetan, autobus hibridoak eskuratuta eta %100 jatorri berriztagarriko energia elektrikoa erosituta. <b>Betetze portzentajea: %68</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Álvaro Miranda, Berrikuntzako eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	15.000 euro, Trantsizio Energetikoko Proiektuan. 10.000 euro, eraginkortasun energetikoan.
<b>OHARRAK</b>	Proiektuaren garapenaren arabera, eraginkortasun energetikoko eta erregai berriztagarrietarako trantsizioko programa desberdinak ezartzeari buruzko erabakiak planteatuko dira etorkizunean.



<b>URTEKO KUDEAKETA PLANA. 3. ZK. Enpresa-aktiboen kudeaketa</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA. 3.4. ERRONKA. Kudeaketa, plangintza eta koordinazioa hobetzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.1. ERRONKA. Prozesuak hobetzea, baliabideen aprobetxamendu ezin hobea lortzeko.
<b>XEDEA</b>	SCPSAren aktiboen errendimendua optimizatzea, euren bizi-zikloan, kontrolerako softwarea ezarrita, hartara, hauek hobetzeko: <ul style="list-style-type: none"><li>• Kudeaketako alderdiak.</li><li>• Prebentzio- eta zuzentze-mantentzea.</li><li>• Segurtasun eta ingurumen araudiaren gainean, arauak betetzea.</li></ul>
<b>2016KO HELBURUAK</b>	1. Aktiboak kudeatzeko softwarea ezartzea Sareen eta Instalazioen Mantentzean (Agustindarren industrialdeko zentroa). 2. GIS bidez aplikatzea integratzea, georeferentziatutako sareetara sarbidea izateko. 3. Aplikazioa ezartzea sendotzea Arazuriko HUAn eta lohien plantan.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Ezarrita dagoenaren arabera ari da aurrera egiten proiektua. Ekintza hauek garatu dira: 1. Sareen eta Instalazioen Mantentze Zentroan softwarea ezartzea: <ul style="list-style-type: none"><li>• UZlren sareen aktiboen zuhaitza definitzea, lan aginduen eta eskaeren fluxua definitzea, Sigem eta Lawson (biltegia) integrazioen diseinu funtzionala.</li><li>• Lawsonen jardueren azterlan funtzionala eta biltegiko artikulua berrituz kodetzea.</li><li>• Sareen eta Instalazioen Mantentze Zentroaren eta enpresako gainerako sailen arteko lan prozeduren analisia, Prisma ezartzearen aurrean (konponketak beste batzuei, harguneak egitea...).</li><li>• Kontraten lanaren kudeaketa Prisman sartzeko, mugikortasuna eta barren kodea.</li></ul> 2. Aurrera egin da eta amaitzen ari da GIS bidez aplikatzea integratzea. 3. Sistemaren barnean sartu da saneamenduko laborategiko zatia, konpost planta eta hondakin arriskutsuen kudeaketa, hori guztia Arazuriko HUAKoa. 4. Prisma aplikazioan egiturak kudeatzeko sistema bat sartzeko aukera aztertu da Sisteplantekin. Prototipo bat garatu da aukerak ebaluatu ahal izateko, sistema konfiguraturik, oinarritzko ikuskatzeen proba egiteko. Proiektua gauzatzen, hasieran kontuan hartu ez zen alderdi bat agertu da eta integrazioen zatia atzeratu egin da. Horrek ekarri du ekoizpena atzeratzea 2 hilabete atzeratzea. <b>Betetze portzentajea: %83</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Felipe Alonso, Antolaketako eta Informazio Sistemetakozuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	50.000 euro.
<b>OHARRAK</b>	Hurrengo ekitaldietan, aurreikusita dago kudeaketa plan hau mugarri hauen arabera gauzatzea: <ul style="list-style-type: none"><li>• 2016-2017: detektatutako gainerako premietan, paraleloan beste jarduketak batzuekin (hobiak, ibai parkea, etab.).</li><li>• 2017: HHTZ.</li></ul>



<b>URTEKO KUDEAKETA PLANA. 4. ZK.</b> <b>Administrazio elektronikoa</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	<p>1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK.</p> <p>1.2. ERRONKA. Erakundearekiko harremanak erraztea.</p> <p>3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA.</p> <p>3.4. ERRONKA. Kudeaketa, plangintza eta koordinazioa hobetzea.</p> <p>4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA.</p> <p>4.1. ERRONKA. Prozesuak hobetzea, baliabideen aprobetxamendu ezin hobea lortzeko.</p> <p>5. ARDATZA. GIZARTEA ETA ALIANTZAK.</p> <p>5.4. ERRONKA. Bi norabidetako komunikazioa hobetzea gizartearekin, gardentasunean, parte-hartzean eta elkarlanean aurrera egiteko.</p>
<b>XEDEA</b>	<p>Kudeatzean eraginkortasuna handitzea, Erakundeak ematen dituen zerbitzuekin lotutako izapideetara herritarrek sarbide elektronikoa izatea erraztuta, izapide horiek sinplifikatu eta arinduta, administrazio elektronikoko prozesuak eta aplikazioak ezarrita, eta antolaketa egokituta herritarrekin lan egiteko modu honetara.</p>
<b>2016KO HELBURUAK</b>	<p>Proiektuaren baldintzetan sartuta dauden mugarren arabera gauzatea proiektua (2015eko amaiera):</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Faktura elektronikorako konponbidea abiaraztea.</li><li>2. Idazkaritzako moduluan proposamenen eta saioen atala abiaraztea.</li><li>3. Elkarreragingarritasuna abiaraztea.</li><li>4. Antolaketaren barnean, espediente elektronikoa ezartzea, tresna elektroniko desberdinak zabaldu eta haien gaineko prestakuntza ematearekin batera: ziurtagiri elektronikoa, sinadura elektronikoa, jakinarazpen elektronikoak eta izapidetze elektronikoa.</li></ol>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. IMren kontabilitate publikoko aplikazio berria ezarri da, barnean hartuta faktura elektronikoa eta Estatuko Administrazio Orokorreko Faktura Elektronikoak Sartzeko Puntu Orokorrean integratzea (FACe).</li><li>2. Idazkaritzako moduluan, proposamenen eta saioen atala ezarri da.</li><li>3. Gizarteratzeko Errenta jasotzen dutenentzat, F tarifako garraio txartelak berritzea automatizatu da, Nafarroako Gobernuarekin elkarreragingarritasunean arituta. NANarekiko elkarreragingarritasuna aztertzen ari gara.</li><li>4. Aurrera egin da espediente/zerbitzu elektroniko berriak ezartzean eta haien bilakaeran: bezeroen kontratatzea telematikoki, harguneak eta konexioak telematikoki eskatzea, SCPSAren kontratatzea, jakinarazpen elektronikoetarako modu berriak. Digitalizazio zertifikatua garatu da eta SIGM integratzea abonatuaren kudeaketarekin eta hondakinen aplikazioarekin.</li></ol> <p>Proiektuak aurrera egin du baina atzerapenekin, 2015ean ekoizpenean jarritako funtzionaltasunak sendotzearen ondorioz, hasiera batean aurreikusi zena baino ahalegin handiagoa eskatu baitute. Horren ondorioz, ez da garatu aurreikusita zegoen guztia.</p> <p><b>Betetze portzentajea: %61</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Felipe Alonso, Antolaketako eta Informazio Sistemetakozuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	125.000 euro.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua, 2017a arte luzatuko dena.



<b>URTEKO KUDEAKETA PLANA. 5. ZK.</b> <b>Kudeaketa eredu korporatiboa</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA. 3.4. ERRONKA. Kudeaketa, plangintza eta koordinazioa hobetzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.1. ERRONKA. Prozesuak hobetzea, baliabideen aprobetxamendu ezin hobea lortzeko.
<b>XEDEA</b>	Erakundearen funtzionamendua hobetzea, hauen bidez: <ul style="list-style-type: none"><li>• Kudeaketarako eredu erabilgarri bat.</li><li>• Enpresaren premietara egokituta dagoena.</li><li>• Informazio garrantzitsua eskura izatea eta erabakiak hartzea erraztuko duena.</li></ul>
<b>2016KO HELBURUAK</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. 2017-2030 Plan Estrategiko berria izatea, 2016aren amaierarako.</li><li>2. Adierazleen kudeaketa ezartzean aurrera egitea (Business Intelligence sistema), lehenbiziko bi proiektu hauen bidez: Bezeroak eta EHG.</li><li>3. Proiektuak kudeatzeko metodologia bateratua diseinatzea, informatikaren esparrura aplikagarria izango dena. Dauden jarduketak desberdinak integratu eta konektatzea, kudeaketa eredu korporatiboaren zati moduan, eta egon daitezkeen disfuncioei eta inkoherentziei irtenbidea emanda.</li><li>4. Administrazio elektronikorako prozesuak/prozedurak definitzeko metodologia diseinatzea.</li></ol>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Planteatutako helburuekin lotuta, ekitaldian garapena hau izan da: <ol style="list-style-type: none"><li>1. 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoa egin da, eta IMko Batzar Nagusiak urriaren 27an onartu zuen. Plan Estrategikoa egiteko eta aztertzeko barne prozesuan 50 lagunek baino gehiagok parte hartu dute, eta gero Batzar Nagusian ordezkaturik dauden alderdi politikoei eztabaidatu dute.</li><li>2. Garraioko Business Intelligence sistemaren proiektu pilotua amaitu da (ordaintzeko bidea), eta bezeroenari hasiera eman zaio. Plangintzaren arabera gauzatu da.</li><li>3. Proiektuak kudeatzeko metodologia bi arlotan aplikatu da: saneamenduko laborategian (STARLIMS proiektua) eta garraioan (HMIParen lehen fasea). Emaitzak aski onak izan dira. Bi proiektu horiei egindako ekarpen zehatzez gain, beharrezkoak diren egokitzapenekin, enpresan proiektuak kudeatzeko metodologia moduan zabaldu behar da progresiboki.</li><li>4. Saiatu da jarduerak gehiago integratzen plangintza estrategikoko eta Urteko Kudeaketa Plana egiteko prozesuetan. Dena den, helburu hau betetzearen zati garrantzitsu bat kudeaketa aurreratuko sistema era eraginkorrean ezartzeari lotuta dago, eta aurreikusita dago hori 2017an hastea.</li><li>5. Metodologia diseinatu da. 2016ko prozeduren modelatuetan ezartzen hasteko dago.</li></ol> <p><b>Betetze portzentajea: %87</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Manuel Iribarren, Antolaketa zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	Ez da aplikagarria. Adierazleak kudeatzeko atalaren sail ekonomikoaren aurrekontua (Business Intelligence sistema) Informazio Sistemen sailak egiten du, eta zati bat Iruñerriko Mankomunitatearen aurrekontuan.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako ekintza, 2013an hasitakoa.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 6. ZK. Lidergoaren garapena	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA. 3.1. ERRONKA. Lidergoa sendotzea. 3.2. ERRONKA. Pertsonen konpromisoa, profesionaltasuna eta gogobetetasuna sustatzea.
<b>XEDEA</b>	IM-SCPSA eratzten duten pertsonen kudeaketa hobetzea, Zuzendaritza Batzordearen eta zuzendaritzako gainerako mailen lidergo gaitasuna garatuta, taldeen arteko kohesioa bultzatuta.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	1. Zuzendaritzako hirugarren mailakoei prestakuntza ematea. 2. Gutxienez, lidergoari buruzko saio bat egitea Zuzendaritzako Batzordearentzat eta zuzendaritzako bigarren mailakoentzat. 3. Lidergoko berariazko inkesta egitea Zuzendaritzako Batzordearentzat eta zuzendaritzako bigarren mailakoentzat.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Egina zegoen plangintzaren arabera, 2016an zuzendaritzako hirugarren mailakoen prestakuntza bateratua eta banakakoa egin da. Lehen eta bigarren mailetak indartze saioei eta lidergoko berariazko inkestari dagokienez, erabaki zen langileen gogobetetasuna aztertzeke bi urtean behingo inkesta 2016ko urri eta abendu artean egitea, eta behin emaitzak lortuta, 2017an, hobetu beharreko alderdiak jorratzea, galderak egin diren zuzendaritzako maila desberdinetan. <b>Betetze portzentajea: %82</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Teresa Azcona, Giza Baliabideen zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	629700015 kontu saila (Prestakuntza).
<b>OHARRAK</b>	2014an langileen gogobetetasuna aztertzeke egin zen inkestako emaitzetatik, lidergo gaiztatzearekin lotutako adierazleen datuak hartu dira, bilakaera aztertzeke.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 7. ZK. Laneko harremanetarako esparru berria	
ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA. 3.2. ERRONKA. Pertsonen konpromisoa, profesionaltasuna eta gogobetetasuna sustatzea.
XEDEA	Laneko harremanak arautu eta erregulatu dituen esparru berri bat izatea; hartara, plantilla egonkorra, gaitua, motibatua eta SCPSAren misioa eta ikuspegia kalitatetik eta eraginkortasunik handienarekin betetzean inplikatu izaten laguntzeko.
2016KO HELBURUAK	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Negoziazioak prestatzea indarrean dagoen araudiaren arabera.</li><li>2. Negoziazioak garatzea beren atal desberdinetan, dauden interes desberdinak bateratzen eta orekatzen saiatuta.</li><li>3. Espezifikoki, Prestakuntza Planeko Sustapena Laguntzeko II. Programa sustatzea, plantillaren gainean aurreikusita dagoen bilakaeraren arabera epe ertainean.</li></ol>
URTEKO JARRAIPENA	<p>Urteko lehen seihilekoan, zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak hitzarmenaren negoziatorako plataformak egin zituzten. Maiatzean hasi ziren negoziatzen, hitzarmeneko gaiak (baimenak, ordainsariak, sustapena, hautaketa, prestakuntza...) jorratu eta akordioak lortzeko helburuarekin. Aurrekoaren emaitza moduan, irailaren 23an aurreakordioa izenpetu zuten SCPSAko atal sindikal guztiekin, eta une horretatik aurrera hitzarmenaren behin betiko testua idazten hasi ziren.</p> <p>2016ko abenduaren 23an, hitzarmena sinatu zuten zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeko ordezkarien %53k (ELA eta CCOO). Abenduaren 29an, Administrazio Kontseiluak berretsi egin zuen hitzarmenaren akordioa; hain zuzen, aldeko 9 boto izan ziren, kontrako 5 eta 2 abstentzio.</p> <p>Prestakuntzako II. Programa dela-eta, trebakuntza emateko 4 ikastaro planifikatu eta/edo egin dira, iturgin, baskulako operadore, garbiguneko langile eta HHTZko palista lanpostuetarako, 2016ko Prestakuntza Planeko beharren diagnostikoaren arabera.</p> <p><b>Betetze portzentajea: %100</b></p>
ARDURADUNA	Teresa Azcona, Giza Baliabideen zuzendaria.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2016/01 – 2016/12
AURREKONTUA	Ez da aplikagarria.





URTEKO KUDEAKETA PLANA. 8. ZK. Erosketak kudeatzeko sistema berria	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA. 3.4. ERRONKA. Kudeaketa, plangintza eta koordinazioa hobetzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.1. ERRONKA. Prozesuak hobetzea, baliabideen aprobetxamendu ezin hobea lortzeko.
<b>XEDEA</b>	Erosteko prozesuaren eraginkortasuna handitzea, kudeaketarako sistema integratu bat ezarrita. Eskaeratik bertatik fakturaren ordainketara joango da, kontrol ekonomikoa hobetuta, eskatzean onartzeko eta espedienteak kontrolatzeko sistema baten bidez eta indarreko araudiaren arabera.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	Eskatzean onartzea hedatzea, plegu bidez egindako erosketetarako, erakunde osoan.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	2016rako ezarritako helburua bete da: lizitazioen bidez egindako erosketa guztiak, 15.000 eurotik gorako zenbatekoa dutenak, erosketetarako sistema berriaren bidez egiten dira (RQC), dagokien arloetatik. <b>Betetze portzentajea: %100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	María Ducay, Finantzen eta Erosketen zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	Ez da aplikagarria.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua da, 2017. urtea arte luzatuko dena, eskatzean onartzea ezarrita plegu bidez egin ez diren erosketetarako.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 9. ZK. Egoitza berria	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. PERTSONAK ETA ERAKUNDEA. 3.2. ERRONKA. Pertsonen konpromisoa, profesionaltasuna eta gogobetetasuna sustatzea. 3.4. ERRONKA. Kudeaketa, plangintza eta koordinazioa hobetzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.1. ERRONKA. Prozesuak hobetzea, baliabideen aprobetxamendu ezin hobea lortzeko.
<b>XEDEA</b>	Egoitza bateratu berria hartzeko konponbidea zehaztean aurrera egitea.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	1. Hausnarketarako aldi bat abiatzea, eraikinaren eta kokalekuaren egokitasuna balioztatzeko, eta bai egitasmoa aurrera eraman ahal izateko aukera ere. 2. Egokia bada, premien programa amaitzea, plegua egitea eta proiektua enkantean hartzeko eskaintza abiaraztea.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<p>Urteko bigarren hiruhilekoan, harremanak eduki ditugu zenbait administrazioarekin aukerak aztertzeko, bai orube berri bat laga eta eskuratzeko, bai eraikinaren erabilera partekatzeko ere. Ez da aztertu merkatu pribatua, baina mugimendu batzuk egiaztatu dira bertan.</p> <p>Hauekin jarri gara harremanetan:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Iruñeko Udalarekin. Zuzkidura erabilerarako dituen orubeen zerrenda bat eman digu. Udalak interesa agertu du eraikinak lagundu dezan bai hirigune historikoa biziberritzen, bai hiria egituratzen ere ipar-mendebalde hego-ekialde ardatzean (Gipuzkoako etorbidea – Lezkairu).</li><li>• Nafarroako Unibertsitate Publikoak interesa du hiriaren erdigunean gune bat izateko, unibertsitateko ordezkari eta hedatze jarduerak egiteko. Iruñerriko Mankomunitatearen egoitza kokatzearekin bateragarria litzateke, baina une honetan ez du dirurik berritzea kofinantatzeko.</li><li>• Nafarroako Gobernuarekin, bozeramaileen bidez. Interes orokorra adierazi du, kokalekuak duen balioarengatik, baina orain arte ez du zehaztu zertarako erabiliko lukeen.</li><li>• Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin. Erabilera konpartitzeko interesa du, funtsen erabilgarritasun partzialarekin, baina, okupazio premiei dagokienez, premiak ez dira bateragarriak Iruñerriko Mankomunitateak dituenekin, dagoen lekua erdia inguru behar baitu.</li></ul> <p>Aurrekoan oinarrituta, dokumentu bat egin zen ebaluazio kualitatibo batekin, kontuan hartutako aukeren irizpide anitzeko ikuspegi batetik. Ebaluazio hori gobernu organoetara igorri zen eta 2016ko urriaren 25ean Batzorde Iraunkorrek egin zuen saioan akordio bat onartu zuten (aldeko 11 boto eta 5 abstentzio), Iruñerriko Mankomunitatearen egoitza Salestarren eraikinean kokatzeko beharrezkoak diren prozedurak hasteko eta hurrengo izapideak bideratzen hasteko.</p> <p>Akordio horren ondoren (2016ko lehen helburua amaitzea ekarri du), akordioan eta UKPko bigarren helburuan aurreikusitako izapideak bideratzen hasi gara. Hartara, azaroan eta abenduan, eskura zegoen informazio guztia bildu da eta hartutako akordioan oinarrituta eskatutako izapideetara hurbiltzen hasi gara.</p> <p><b>Betetze portzentajea: %83</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari eta SCPSAko zuzendaritza-gerentzia.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	250.000 euro.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 10. ZK. SCPSAren 2016ko obren plana	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea. 1.3. ERRONKA. Azpiegituren eta zerbitzuen plangintza koordinatu eta hobetzea. 1.7. ERRONKA. Larrialdiko egoeretan erantzuteko gaitasuna sendotzea.
<b>XEDEA</b>	SCPSAren 2016ko aurrekontuetan zehaztutako proiektuak eta obrak gauzatzea: 1. Goi hornidura Iruñerriko Mankomunitatearen eremuan: 3,45 M€ 2. Goi hornidura eremu mugakideetan: 1,31 M€ 3. Goi saneamendua: 3,60 M€ 4. Hornidurako eta saneamenduko tokiko sareak: 2,57 M€ 5. Hondakinen tratamendua: 1,88 M€ 6. Eraikinak eta beste batzuk: 2,60 M€ 7. Tokiko bideak: 0,11 M€
<b>2016KO HELBURUAK</b>	2016ko aurrekontuetan jasota dagoenetik, gutxienez, proiektu edo obra hauek garatzea, lehentasunezkoztat jotzen baitira. Denen artean, aurreikusitako inbertsioaren %78 hartzen dute: <b>1. <u>Goi hornidura</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Larrasoñan mazela egonkortzea (3. fasea).</li><li>• Ziritzako biltegia.</li><li>• Arreko biltegia.</li><li>• Zulueta ponpatzea eta bulkatzea.</li><li>• Artetako ubideetan berritze lanak egitea.</li></ul> <b>2. <u>Goi hornidura eremu mugakideetan</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Txulapain hornitzea, 5. fasea: Aristregi eta Osinaga.</li><li>• Olaibar (Olaitz, Olabe eta Enderitz) eta Ezkabarte hornitzea (Eusa eta Aderitz).</li></ul> <b>3. <u>Goi saneamendua</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Anozko hustubidea eta arazketa.</li><li>• Artetako hustubidea eta arazketa.</li><li>• Zubiriko HUA.</li><li>• Elo eta Getzeko arazketa.</li><li>• Lohiak loditzeko 1., 2. eta 3. tangak konpontzea.</li><li>• Zentrifugoen kolektorea berritzea Arazuriko HUAn.</li><li>• Arazuriko HUAKo gainezka bide nagusiko bahea.</li><li>• Arazuriko HUAKo 3. flotagailua.</li><li>• Lehen mailako lohien bahe sistema eta bulkatzea ordeztzea.</li><li>• Hondakin urak ponpatzea eta bulkatzea handitzea Arazurin (1. fasea).</li></ul> <b>4. <u>Hornidurako eta saneamenduko tokiko sareak</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hornidura eta saneamendu sareak berritzea Beriainen.</li><li>• Euri uren sarea handitzea Landabengo industrialdean.</li><li>• Saneamendu sarea Barañaingo Miluze kalean.</li></ul> <b>5. <u>Hondakinen tratamendua</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Gongorako HHTZko 19. gelaxka.</li><li>• Lezkairuko bilketa pneumatikoko zentrala martxan jartzea.</li></ul> <b>6. <u>Eraikinak eta beste batzuk</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Santa Luziako, Bolborategiko, Noaingo eta Saratsateko biltegi-tako estalkiak irazgaitz bihurtzea.</li></ul>



<p><b>URTEKO JARRAIPENA</b></p>	<p>2016ko helburuetan kontuan hartutako proiektuen eta obren egoera hau da:</p> <p><b>1. <u>Goi hornidura</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Larrasoañan mazela egonkortzea (3. Fasea). Maiatzean, hasi ziren egun berean, gelditu ziren lanak, Arian Construcción y Gestión de Infraestructuras enpresa esleipendunaren konkurtso-egoeraren ondorioz. Azaroan egin zuen saioan, SCPSAko Administrazio Kontseiluak onartu zuen kontratua Construcciones Mariezcurrena enpresari lagatzea, baina ez dira lanean hasiko 2017ko maiatza arte.</li> <li>Ziritzako biltegia. Lanen %15 eginda zeudenean gelditu ziren lanak, Arian Construcción y Gestión de Infraestructuras enpresa esleipendunaren konkurtso-egoeraren ondorioz. Azaroan egin zuen saioan, SCPSAko Administrazio Kontseiluak onartu zuen kontratua Construcciones Mariezcurrena enpresari lagatzea, baina ez dira lanean hasiko 2017ko urtarrila arte.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zuluetako ponpatzea eta bulkatzea. Proiektua idazten ari da.</li> <li>Artetako bideetan berritze lanak egitea. Proiektua idazten ari da.</li> </ul> <p><b>2. <u>Goi hornidura eremu mugakideetan</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Txulapain hornitzea, 5. fasea: Aristregi eta Osinaga. Lanak bukatuta daude eta martxan jarrita uztailean.</li> <li>Olaibar (Olaitz, Olabe eta Enderitz) eta Ezkabarte hornitzea (Eusa eta Aderitz). Proiektua amaituta dago. Nafarroako Gobernuaren Tokiko Administrazioako Departamentuak gastu konpromisoa gauzatu zain gaude.</li> </ul> <p><b>3. <u>Goi saneamendua</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Anozko hustubidea eta arazketa. Proiektua amaituta dago. Lanak lizitazio fasean daude.</li> <li>Artetako hustubidea eta arazketa. Proiektua amaituta dago eta lanak esleituta. 2017ko urtarrilean hasiko dira.</li> <li>Zubiriko HUA. Lanak egiten ari dira.</li> <li>Elo eta Getzeko arazketa. Proiektua idatzita dago. NILSAk baimena eman zain gaude.</li> <li>Lohiak loditzeko 1., 2. eta 3. tangak konpontzea. Lanak amaituta daude.</li> <li>Zentrifugoen kolektorea berritzea Arazuriko HUAn. Lanak amaituta daude.</li> <li>Arazuriko HUako gainezkabide nagusiko bahea. Araztegiko modelizazio hidraulikoa amaituta dago. Proiektua hasita dago.</li> <li>Arazuriko HUako 3. flotagailua. Lanak amaituta daude.</li> <li>Lehen mailako lohien baheen sistema eta bulkatzea ordezte eta bulkatzea. Proiektua idazteko fasean dago.</li> <li>Hondakin urak ponpatzea eta bulkatzea handitzea Arazurin (1. fasea). Lanak amaituta daude.</li> </ul> <p><b>4. <u>Hornidurako eta saneamenduko tokiko sareak</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hornidura eta saneamendu sareak berritzea Beriainen. Lanak amaituta daude.</li> <li>Euri uren sarea handitzea Landabengo industrialdean. Lanak amaituta daude.</li> <li>Saneamendu sarea Barañaingo Miluze kalean. Proiektua idatzita dago.</li> </ul> <p><b>5. <u>Hondakinen tratamendua</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gongorako HHTZko 19. Gelaxka. Lanak amaituta daude.</li> <li>Lezkairuko bilketa pneumatikoko zentrala martxan jartzea. Lanak amaituta daude.</li> </ul> <p><b>6. <u>Eraikinak eta beste batzuk</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Santa Luziako, Bolborategiko, Noaingo eta Saratsateko biltegi-tako estalkiak irazgaitz bihurtzea. Lanak egiten ari dira.</li> </ul> <p><b>Betetze portzentajea: %59</b></p>
<p><b>ARDURADUNA</b></p>	<p>Juan Ramón Ilarregui, Arlo Tekniko eta UZiko zuzendaria.</p>
<p><b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b></p>	<p>2016/1 – 2016/12</p>
<p><b>AURREKONTUA</b></p>	<p>15,5 milioi euro.</p>
<p><b>OHARRAK</b></p>	<p>2013-2016 aldirako Saneamendu eta Arazketa Planeko inbertsio nagusiak hartzen ditu.</p>



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 11. ZK. Uraren Segurtasunerako Plana: III. fasea – Tratamendua Urzasungo EUTEn	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea.
<b>XEDEA</b>	Urzasungo EUTEn, urari gai organikoak kentzea optimizatu eta kontrolatzea.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>2015eko irailaren 15a eta abenduaren 15a arteko aldirian Urzasungo EUTEn egindako probetan lortutako emaitzak aztertzea, Eugiko urtegia urez hustu eta gero.</li><li>Eugiko urtegian azterlanak egitea ECOMAPPERekin (kalitatea eta batimetria) eta perfiladore automatikoak kokatuta.</li><li>Diseinatutako prozesua ebaluatzea udazkenean.</li><li>Urzasungo EUTE modernizatzeko proiektua zehaztea.</li></ol>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>Joan den urtean plantan egin ziren esperientzien emaitzekin, Llobregateko EUTEn egiaztatutako behaketekin eta aurten egindako laborategiko saiakuntzekin bat eginez ura edateko on bihurtzeko ekoizpen prozesuan ikatz aktibatuarekin probak egin dira (ikatz aktibatu hautsa). Hasierako emaitzek erakusten dute gatzapen prozesua hobetu dela eta gai organikoek gehiago eusten zaiola. Lortutako emaitzak aztertzen ari gara, ikatz aktibatuaren dositze instalazio bat diseinatzeko.</li><li>Ur gordinak eta tratatuak ezaugarritzeko lehen azterlan bat egin da Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Eugiko urtegioko uraren gai organikoa ezaugarritzea lortu da, fluoreszentzia analisiaren bidez, eta hori osatuko da laborategian ozonizatutako urari egindako probekin, unibertsitate horrekin egindako azterlan berri baten esparruan.</li><li>Batimetria eta kalitate azterlana egin da Eugiko urtegian, urpeko drone bat erabilia, Coruña Unibertsitatearekin lankidetzan arituta. Emaitzak oso onak izan dira. Emaitzak Ebroko Ur Konfederazioari helaraziko zaizkio.</li><li>Perfiladorea eskuratu dugu eta 2017ko urtarilean Eugiko presan kokatuko da. Atzerapenak izan dira Ebroko Ur Konfederazioak baimenak ematean. Urtegioko uraren kalitatea kontrolatzeko izango da.</li><li>EUTEa berregituratzeko lehen proiektua onartu da: irazkiak aldatzea. Lanak planifikatu dira kontuan izanda martxan jarriko dela 2018ko udan.</li></ol> <p><b>Betetze portzentajea: %93</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Teo Herreras, EUTEko burua.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	50.000 euro, kalitate azterlanerako.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 12. ZK. SCPSAren egituren patologien analisisa. Egiturak Kudeatzeko Sistema	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.3. ERRONKA. Azpiegituren eta zerbitzuen plangintza koordinatu eta hobetzea. 1.7. ERRONKA. Larrialdiko egoeretan erantzuteko gaitasuna sendotzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.3. ERRONKA. Berrikuntza eta teknologia sustatzea.
<b>XEDEA</b>	Kontserbatzeko eta berritzeko inbertsio eskakizunetan lehentasunen mapa bat ezartzea; hartara, aukera emateko: <ul style="list-style-type: none"><li>• Aktiboak hobeki zaintzeko.</li><li>• Aurreratzeko eta mantentze kostuak aurrezteko.</li></ul>
<b>2016KO HELBURUAK</b>	1. Analisiaren lehen fasea egitea, egituren kopuruari dagokionez. 2. Inbentarioa amaitzea.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	1. Egituren kopuruaren analisisa dela-eta, kalkulatzeko da %80 egin dela eta egiteko daudela edateko ona den ura tratatzeko estazioena. 2. Aurreko analisisan aintzat hartutako egituren %50en inbentarioa egin da. Kalteen katalogoa egin da, oinarritzko ikuskatzeetan erabili ahal izateko. Egiturak kudeatzeko baliatuko den eredu zehaztu da, oinarritzko ikuskatzeak Aktiboen Kudeaketan sartuta; ikuskatze nagusiak, berriz, berariazko aplikazio baten bidez garatuko dira (aukeratuko da zein). <b>Betetze portzentajea: %60</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Juan Ramón Ilarregui, Arlo Tekniko eta UZIKo zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 - 2016/12. Hainbat urtetarako proiektua, 2018. urtea arte luzatuko dena.
<b>AURREKONTUA</b>	60.000 euro (alde batera utzirik garapen informatikoa. Beste 60.000 euro behar dira).
<b>OHARRAK</b>	2014an, gai honen gaineko lehen hurbilketa bat egin zen. Oso apalak ziren helburuak abiapuntu hartuta, egiaztatu zen analisi hau oso garrantzitsua dela. 2015ean, inbentarioa egiteko prozesua hasi da eta laguntzeko lehen aplikazioa kontzeptualki garatu da. Kudeaketa plan hau berrikuntza proiektuen bidez garatu daiteke beste erakunde batzuekin.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 13. ZK. <b>Ibai Parkea handitzea</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea.
<b>XEDEA</b>	Ibai Parkea Iruñerrian hobetu eta handitzea, eskualde mailan korridore berde bat sortzen lagunduta.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Iruñerriko Ibai Parkeak eta Iruñeko Udalarenak bat egitea aztertzea elkarren arteko batzorde batek.</li><li>2. Ibai Parkea Eguesibarren zabaltzea: udalez gaindiko plan sektoriala onartu, proiektua aldatu eta lursailak lortzeko izapideak bideratzen hastea.</li><li>3. Ibai Parkea handitzea Oltza Zendearen:<ul style="list-style-type: none"><li>• Arazuri-Orobia zatia: udalez gaindiko plan sektoriala aldatu eta proiektua egitea.</li><li>• Iruñeko Parkearekin lotzea Landabenen.</li></ul></li></ol>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Iruñeko Udalarekin batera dagoen batzordeak azterlana egin du. Aldeen arteko hitzarmena izenpetzea gelditzen da, eta hori 2017ko otsailean egitea aurreikusita dago.</li><li>2. Nafarroako Gobernuak Eguesibarko udalez gaindiko plan sektoriala onartu du. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eraikitze proiektua aldatzea gelditzen da, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren zain, eta, hortaz, ezin izan da hasi lursailak desjabetzen.</li><li>3. Arazuri-Orobia zatia: udalez gaindiko plan sektoriala aurkeztu da, eta Nafarroako Gobernuak onartu zain gaude (Asteraingo zubia). Obra proiektua ere aldatzeko zain dago, eta, beraz, aurreikusten da lanak 2017ko ekainean hasiko direla.</li><li>4. Landabengo lotura. Lanak egiten ari dira eta aurreikusita dago 2017ko apirilean irekitzea.</li></ol> <p><b>Betetze portzentajea: %70</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Alfonso Amorena, Kalitatearen Kontrol, Ingurumen eta Prebentzioko zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	Kopuru hauek aurreikusi dira: <ul style="list-style-type: none"><li>• Oltza Zendearako, 150.000 euro.</li><li>• Eguesibarrerako, 100.000 euro.</li></ul>



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 14. ZK. Gai organikoak tratatzeko plana	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.4. ERRONKA. Hiri hondakinen frakzio organikoa eta gainerakoa edo errefusa tratatzeko sistema diseinatu eta ezartzea.
<b>XEDEA</b>	5. edukiontzia-aren bidez bildutako biohondakinei tratamendu sistema egokienak aplikatzea, helburu hauek bete ahal izateko: <ul style="list-style-type: none"><li>• Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legean ezarritako berreskuratze portzentajea betetzea: etxeko hondakin guztien %50 2020. urtean.</li><li>• Biohondakinen berreskuratze portzentajea: %50 gaikako bilketan 2020. urtean.</li><li>• Biodegradagarriak diren hondakinak isurtzea murrizteko portzentajearen laguntza, 1481/2001 Errege Dekretuaren arabera: 2016. urtean gutxitzea 1995. urtean isuritako hondakin biodegradagarrien %35era, Estatu mailan.</li></ul>
<b>2016KO HELBURUAK</b>	Aintzat hartuta Iruñerrian biohondakinak tratatzeko alternatiben azterlanean lortutako ondorioak eta lehen seihilekoan egin beharreko azterlanak, 2016rako helburuak hauek dira: <ol style="list-style-type: none"><li>1. Gai organikoen tratamendurako teknologia eta haren kokapena zehaztea.</li><li>2. Behin aurreko helburua lortuta, hirigintza-aren eta ingurumenaren arloko izapideak bideratzen hastea.</li><li>3. Eraikuntza proiektua idaztea.</li></ol>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Bi azterlan agindu ziren, konpostaje instalazio bat ezartzeari begira, eta ondorio hauek atera ziren: <ul style="list-style-type: none"><li>- Gomendatzen da 15.000 eta 10.000 tona arteko planta tamaina, malgua izango dena, bilketa bereiziko edukiontzian gai organikoak jasotzearen bilakaerara egokitzeko.</li><li>- Sistema itxia erabiltzea aireztapen behartuarekin (4 aste), deskonposatze fasean eta umotze fasean, tranpal estatikoan edo erdiestatikoan (12 aste).</li><li>- Tratamendua nabe estalian, igorpenen tratamendua egiteko aukerarekin, herriguneekiko distantzia-aren arabera.</li><li>- Kalkulatzen da inbertsio kostua 7 M€-koa izatera hel daitekeela eta beharrezkoa den eremua 11.400 metro koadrokoa.</li><li>- Iradoki da nekazaritzako planta eraikitzea, 200-400 tonakoa, Erreniega mendiaren hegoaldeko hegalean eta auzoko konpostajea jartzea Zubirin, Eugin, Iraizotzen eta Olaguen.</li></ul> <b>Betetze portzentajea: %20</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Carmen Lainez, Hondakinen Arloko zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	150.000 euro.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua.





URTEKO KUDEAKETA PLANA. 15. ZK. Gainerakoen frakzioa tratatzeko plana	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.4. ERRONKA. Hiri hondakinen frakzio organikoa eta gainerakoa edo errefusa tratatzeko sistema diseinatu eta ezartzea.
<b>XEDEA</b>	Nafarroako Gobernuak bultzatutako Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua berrikusteko prozesuan parte hartzea, gainerakoen edo errefusaren frakzioa tratatzeko sistema esparru horretan zehaztu eta ezartzeko, hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"><li>• Hondakinen hierarkia, 21/2011 Legean ezarritakoa.</li><li>• Hondakinak isurtzeko baldintzak, 1481/2001 Errege Dekretuan ezarritakoak.</li></ul>
<b>2016KO HELBURUAK</b>	1. Tratamendu teknologia eta kokapena zehaztea. 2. Egokia bada, hirigintzaren eta ingurumenaren arloko izapideak bideratzen hastea.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Martxoaren 8an, Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuaren zirriborroa aurkeztu zen eta herritarrek hainbat bidetatik parte hartzeko epea eta bilerak egitekoa abiarazi zen. Abuztuan, Hondakinen Planaren lehen bertsioa idatzi zen, eta jendaurrean jarri zen. Iruñerriko Mankomunitateak hainbat alegazio aurkeztu zituen, baina ez zituzten aintzat hartu. Abenduaren 14an, Nafarroako Gobernuak 2017-2027 aldirako Hondakinen Plana onetsi zuen. Planaren arabera, gainerakoen frakzioa tratatzeko ahalmen nahikoa dago jada badauden plantetan eta aurreikusten da transferentzia planta bat Iruñerriko. Aukera moduan, kontuan hartzen du gainerakoen planta bat eraikitzea garraio lotuak saihesteko. Planak IMren esku uzten du kokalekua eta planta eraikitzeko beharra. <b>Betetze portzentajea: %13</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Carmen Lainez, Hondakinen Arloko zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	Ez da aplikagarria.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 16. ZK. EHGrako plan berria	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.3. ERRONKA. Azpiegituren eta zerbitzuen plangintza koordinatu eta hobetzea. 1.6. ERRONKA. EHGaren erabilera handitzea.
<b>XEDEA</b>	Hainbat urtetarako EHGrako plan berria onartzea, garraio publikoari eta mugikortasun iraunkorrari bultzada emateko estrategia berria sustatzeko: EHGaren sare berria eskualdeko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan baten barnean, garaje berriak eta abar.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	Premiak ebaluatu, jarduketak proposatu, plan berriaren izapideak bideratu eta
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<p>Egungo EHGaren jarraipena egiteko Batzorde Teknikoa jarri da abian Nafarroako Gobernuarekin, eta administrazioek EHGari egin behar dizkioten ekarpenen likidazioak ezarri dira, 2015eko ekitaldia behin betiko erregularizatzeari eta 2016koa behin-behinean egiteari dagozkionak.</p> <p>EHGaren eta taxiaren 2017rako beharrak eta jarduketak ebaluatu dira, 2017rako Iruñerriko Mankomunitatearen aurrekontuan jasotakoak, Batzar Nagusiak 2016ko urriaren 27an egin zuen saioan onartutakoan.</p> <p>Aurreko aurreikuspen ekonomikoak baldintzatuta zeuden Transpots Ciutat Comtal S.A. (TCC) enpresak luzapenari buruzko uztailan aurkeztu zuen eskaeraren emaitzaren arabera. Izan ere, eskatu zuen 2017-2019 aldirako luzatzeko 2012-2016 aldirako kontzesio kontratuaren aldaketa, kontzesioaren oreka ekonomikoa urratzeagatik. Eskaera horretan eskatu zuen zenbait baldintza bere aldera aldatzeko, besteak beste, proposatuta guztiz kentzeko bidaiarien konpromisoa ez betetzeagatik zigorra. Azkenik, Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2016ko abenduan egin zuen saioan erabaki zuen 2012-2016 aldirako ezarritako baldintza berberak luzatzea (jatorrizko kontratuko zigorraren %35 aplikatu zen).</p> <p>Behin espediente hori ebatzita, 2017ko lehen hiruhilekoan 2017-2018 aldirako EHGaren plan berria bideratuko da. Onartu bitartean, dagoen EHGaren plana luzatuko da.</p> <p>Proiektuaren helburuak berriro planifikatu behar izan dira, EHGaren plan berria onartu baino lehen TCC enpresak aurkeztutako eskaera ebatzi behar zelako (kontzesioaren oreka ekonomikoa urratzeagatik kontratua aldatzea luzatzea).</p> <p><b>Betetze portzentajea: %74</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Jesús Velasco, Garraio Arloko zuzendaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	Ez da aplikagarria.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 17. ZK. IHMIPa egitea	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	<p>1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK.</p> <p>1.3. ERRONKA. Azpiegituren eta zerbitzuen plangintza koordinatu eta hobetzea.</p> <p>1.5. ERRONKA. EHGaren sarearen eredu berria diseinatu eta ezartzea.</p> <p>1.6. ERRONKA. EHGaren erabilera handitzea.</p> <p>4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA.</p> <p>4.3. ERRONKA. Berrikuntza eta teknologia sustatzea.</p> <p>5. ARDATZA. GIZARTEA ETA ALIANTZAK.</p> <p>5.1. ERRONKA. Gobernu organoekiko, tokiko erakundeekiko eta erabakiak hartzeko foro teknikoekiko parte-hartzea eta elkarlana handitzea.</p> <p>5.4. ERRONKA. Bi norabidetako komunikazioa hobetzea gizartearekin, gardentasunean, parte-hartzean eta elkarlanean aurrera egiteko.</p>
<b>XEDEA</b>	Eskualdeko Hiri Garraioko sare berria ezartzea, Iruñerriko Mankomunitatearen garraio esparrurako mugikortasun iraunkorreko azterlan baten eta herritarren parte-hartzerako plan baten emaitza izango dena.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. IHMIPerako administrazioen arteko hitzarmena egin, onartu eta sinatzea.</li><li>2. Laguntza teknikoa kontratatzea egiteko eta hasteko.</li></ol>
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<p>“EHGaren sare berria” hasierako proiektuari izena aldatu zaio eta orain “<b>IHMIPa egitea</b>” da; izan ere, urtearen lehen seihilekoan Mankomunitateak Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan (IHMIP) bat egiteko jarduketak gauzatu baitziren.</p> <p>2016ko urtarrilaren 28an, IHMIPari buruzko jardunaldi bat egin zen, EHGaren eremuan sartuta dauden 18 udalerrietako alkate eta alderdi politikoentzat eta IMren gobernu organoetako ordezkarietzat, hori guztia ENDURANCE Europako proiektuaren esparruan. Administrazioen arteko hitzarmenaren formula proposatu zen, inplikaturako administrazioen eskubideak eta erantzukizunak egituratzeko, eta Mankomunitateari agindu zitzaion lanak egiteko, hitzarmen zirriborro bat emanda.</p> <p>Udalek, Nafarroako Gobernuak eta Mankomunitateko gobernu organoek dokumentu horri egindako ekarpenak jaso eta gero, hitzarmena onartu eta izenpetu zen, jendaurreko ekitaldi batean, 2016ko irailaren 22an.</p> <p>Mankomunitateak laguntza teknikoa kontratatu du IHMIPa egiteko. Abenduan hasi da lanean eta kalkulatu da 2018aren amaierarako bukatuko duela. Plan horrek kontuan hartuko du jarduketa horretan sartutakoa eta garrantzi handiko parte-hartze plan bat izango du.</p> <p>Beste alde batetik, 2017rako Mankomunitatearen aurrekontuetan, garraio publikoko ardatz nagusien sarearen bideragarritasun azterlan bat egitea onartu da. Azterlan hori IHMIParen lanetan sartu beharko da.</p> <p><b>Betetze portzentajea: %100</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	José Luis Díaz Carrero, EHGaren Plangintzako eta Azterlanetako teknikaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	160.000 euro, Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planaren esparruaren barnean proiektu hau egiteko, baldin eta hori hitzartzen badute Mankomunitateak eta inplikaturako dauden administrazioek.
<b>OHARRAK</b>	<p>Hainbat urtetarako proiektua da. Helburu nagusia gobernu organoen erabakien mende dago.</p> <p>Aurrez ikus daitekeen egutegia:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- 2016: Iruñerriko Mankomunitateak HMIPa koordinatuko duen erabakitzea.</li><li>- 2017: Sare nagusiari buruzko bideragarritasun azterlana.</li></ul>



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 18. ZK. EHGaren garajeak	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea. 1.3. ERRONKA. Azpiegituren eta zerbitzuen plangintza koordinatu eta hobetzea.
<b>XEDEA</b>	Garaje berriak edukitzea EHGaren flotarako, etorkizuneko zerbitzuaren premiei erantzuteko edukiera nahikoa dutenak.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	1. Iruñerriko Mankomunitateak lursailak eskuratzea. 2. Finantzatzeko formulak aztertzea. 3. Aurreproiektua hastea.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Mankomunitateak lursailak eskuratzeko, ezinbesteko betebeharra da Iruñeko Udal Planeko aldatetaren birpartzelazioa behin betiko onartzea, katastroko 1461, 2200 eta 2201 lurzatiei dagokiena, eta bai Udalak lagatze bidez lortuta izatea ere eremu horretan aurreikusita dagoen 40.200 metro koadroko dotaziozko lurzati publikoa. Hartutako konpentsatze edo borondatezko birpartzelazio sistemak gehienez ere 12 hilabeteko epea ezartzen zuenez aldatetaren behin betiko onespentetik birpartzelazio proiektua aurkezteko eta ez denez bete, erabaki zen Iruñeko Udalar eskatzea jarduteko sistema ordeztzeko jarduketa sistema publiko baten bidez (kooperazio sistema halakoa da). Iruñeko Udalak 2017an helduko dio eskaera horri. Proiektu honetako gainerako jarduketak erabaki horren emaitzari baldintzatuta daude. <b>Betetze portzentajea: %35</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Pedro Rezusta, Garraioaren Plangintzako eta Azterlanetako teknikaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	50.000 euroko kontu saila dago aurreproiekturako, lursailak eskuratzen badira.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua. Birpartzelazio proiektua egiteko dago. Iruñeko Udalak bultzada ematea beharrezkoa da.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 19. ZK. Hiriko altzariak EHGaren geralekuetan	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea.
<b>XEDEA</b>	Geralekuetako hiri altzarietarako kontratu berria izatea 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	Pleguak zehaztu, enkantean hartzeko eskaintza onartu eta kontratua esleitzea.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	Egungo kontratuaren ebaluazio zehatza egin da, giltzarriak diren puntuak eta hobetzeak detektatzeko helburuarekin. Kontratu berria ikuspuntu teknikitik, juridikitik eta ekonomikitik aztertu eta gero, kontzesio berria diseinatu da, eta bertan eutsi egiten zaio geralekuetako hiri altzarien berezko modeloari, kontratuaren iraupen laburra ezartzen da (hasierako epea 3 urtekoa eta hurrengo 2 urteetan luza daitekeena) eta kontratuaren erregimen ekonomikorako formula berritzailea sartzen da. Hain zuzen, Mankomunitateak kanona kobratzeari uko egingo dio eta "jarduteko urteko unitate" batzuk diseinatuko dira inbertsio berrien tratamendurako. 2016ko azaroaren 30ean Batzorde Iraunkorrek egin zuen saioan onetsi zen lizitazioa eta espero da 2017ko lehen lauhilekoan esleitzea, hartara, egungo kontratua 2017ko apirilaren 30ean amaitzen denean indarra hartzeko. Helburuak bete dira eta kontratua 2017ko lehen lauhilekoan esleitzea espero da. <b>Betetze portzentajea: %90</b>
<b>ARDURADUNA</b>	M <sup>a</sup> Paz Alvero, Garraioaren Plangintzako eta Azterlanetako teknikaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	Ez da aplikagarria.
<b>OHARRAK</b>	Egungo kontratuak 2017ko apirilaren 30a arte du indarra.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 20. ZK. Garraioa ordaintzeko eta txartelak kargatzeko era berriak	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea. 1.6. ERRONKA. EHGaren erabilera handitzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.3. ERRONKA. Berrikuntza eta teknologia sustatzea.
<b>XEDEA</b>	Garraioko txartela kargatzeko eta EHGa ordaintzeko era berriak prestatzea, eta bai EHG eta Taxirako ordainbide komun bat ere.
<b>2016KO HELBURUAK</b>	Dauden aukerak aztertzea, EHGaren premietara hobekien moldatzen direnak proposatzea eta bai konponbide bateratu bat ere EHGa eta Taxia ordaintzeko.
<b>URTEKO JARRAIPENA</b>	<p>2016 honetan, egungo EHGaren txartela kargatzeko era berrien analisia egin da (<i>on line</i> kargatzea, sakelako telefonoarekin eta NFC teknologiarekin kargatzea, banketxetako kutxazainetan kargatzea, autosalmentarako makinetan kargatzea...) eta plastikozko txartelari osagarri zaizkion ordainbide berriena ere bai (sakelakoaren bidez ordaintzea, ondorengo ordainketa, EMV...).</p> <p>Horretarako, bisitak egin dira Entidad de Infraestructuras de la Generalitat (EIGE) izenekora Valentzian eta Bizkaiko Garraio Partzuergora (CTB) Bilbon. Enpresei egin zaie arreta, besteak beste, TRANSERMOBILE eta PREPAY (sakelakoaren bidez ordaintzea), FARAMOBILE (autobusen barnean eskudirutan ordaintzearen metodo alternatiboak) eta PAY[IN] enpresei (txartela sakelakoarekin kargatzeko konponbideak ematen ditu). Horrez gain, bilerak egin dira Foru Komunitateko finantza erakunde nagusiekin (Rural Kutxa, CaixaBank eta Laboral Kutxa), EHGko txartela banketxetako kutxazainetan kargatzeko aukera aztertzeko, eta bai aparkatze arautuko zerbitzuaren kontzesioa duen Dornier enpresarekin ere, ORAko makinetan txartela kargatzea sartzeko aukera aztertzeko.</p> <p>Horrekin guztiarekin, analisi dokumentu zehatza egin da, aukeretako bakoitza aztertzen duena, egokitzea EHGaren egungo ordainbidearen egoerara eta hurrengo pausoetarako proposamen bat. Dokumentu hori Garraio Departamentuari eta SCPSAn eta IMn inplikaturata dauden arloei azaldu zitzairen. Azkenean, Batzorde Iraunkorrek 2016ko abenduaren 20an egin zuen saioan azaldu zen.</p> <p>EHGa eta taxia ordaintzeko baterako ordainbide bat ezartzeari dagokionez, EHGaren txartela erabiltzea dentsitate baxuko zenbait eremutan eskaeraren araberako taxi zerbitzuak ordaintzea kudeatzeko proposamen tekniko bat aztertu da, hurrengo proiektuan zehazten den moduan (21. zenbakiko UKPa). Konponbide teknikoa zehazteko, bilerak egin dira inplikaturata dauden agente edo eragile nagusiekin: Aranguren Ibarreko Udaia, ANIMSA eta Teletaxi.</p> <p>Erabaki da konponbide hori 2017an ezartzea, IM-SCPSAren Berrikuntza Planaren esparruan, EHGaren txartela Aranguren udalerrian eskaeraren araberako taxi zerbitzua ordaintzea kudeatzeko. Horretarako, hitzarmen bat ari gara egiten Aranguren Ibarreko Udalaren, Teletaxi San Fermin elkartearen eta Iruñerriko Mankomunitatearen artean, eta aurreikusita dago 2017ko lehen hilabeteetan izenpetzea.</p> <p><b>Betetze portzentajea: %100</b></p>
<b>ARDURADUNA</b>	Carolina Jiménez, Garraioaren Plangintzako eta Azterlanetako teknikaria.
<b>HASTEKO/AMAITZEKO DATA</b>	2016/01 – 2016/12
<b>AURREKONTUA</b>	25.000 euro.
<b>OHARRAK</b>	Hainbat urtetarako proiektua. Barnean hartu da <b>Idéate</b> programako barne iradokizun bat, 1. zenbakiko UKParen esparruan (Berrikuntza plana), EHGrako eta taxirako ordaintxartel komunari buruz. Emaizak eragina izango du txartelak kargatzeko sarearen kontratuan. Haren hasierako iraupena 2017ko azaroaren 17a bitartekoa da.



URTEKO KUDEAKETA PLANA. 21. ZK. Taxia dentsitate txikiko eremuetan	
ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	1. ARDATZA. HERRITARRAK ETA ZERBITZUAK. 1.1. ERRONKA. Zerbitzuen kalitatea handitzea. 4. ARDATZA. KUDEAKETA INTEGRATUA. 4.3. ERRONKA. Berrikuntza eta teknologia sustatzea.
XEDEA	Taxi lineak antolatzea, EHGa zerbitzuarekin integratuak, garraio publikoaren zerbitzua emateko Iruñerriko dentsitate txikiko eremuetan.
2016KO HELBURUAK	Proba pilotua zehaztea.
URTEKO JARRAIPENA	ACÉRCATE berrikuntza taldeak, ordainbidearen ardura duten Informazio eta Garraio Sistemetak langileekin batera, konponbide bat diseinatu du EHGa ordaintzeko txartela erabiltzeko taxia ordaintzeko eskaeraren arabera (20. zenbakiko UKPa). Eskaeraren arabera taxi zerbitzu erregularrak dituzten udalerriei (baterako zerbitzua emateko eremuaren barnekoak izanik) azaldu zaie proiektu hau eta bai zerbitzua ematen duen taxi gidarien elkarteari ere. Azkenean, hasierako akordio bat lortu da proba pilotu bat egiteko taxi gidarien elkartearen, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Aranguren Ibarreko Udalaren artean (eskaeraren arabera taxi zerbitzu erregularra duen udalerrietako bat da). Hasierako akordio hori berretsi egin beharko da ondoren hitzarmen batean, eta hartan zehaztuko dira proba pilotuaren alderdiak, alde bakoitzaren erantzukizunak eta betebeharrak, epeak... Egun, hitzarmenaren lehen zirriborro bat dago, laster banatuko dena, inplikaturik dauden agente edo eragileen ekarpenak biltzeko. <b>Betetze portzentajea: %100</b>
ARDURADUNA	Pedro Rezusta, Garraioaren Plangintzako eta Azterlanetako teknikaria.
HASTEKO/AMAITZEKO DATA	2016/01 – 2016/12
AURREKONTUA	40.000 euro.
OHARRAK	Hainbat urtetarako proiektua. Hitzarmena sinatu da Nafarroako Gobernuarekin, dentsitate txikiko eremuetarako zerbitzuak aztertzeko. Proiektu hau lotuta dago Iruñerriko eremu sakabanatuetako mugikortasunari buruzko proiektuarekin (1. zenbakiko UKPan sartuta dago, "Berrikuntza planean").



### 3. 2016KO DATU ETA ADIERAZLE ADIERAZGARRIAK

URTEKO KUDEAKETA PLANEKO DATUAK ETA ADIERAZLEAK	2013	2014	2015	2016	HELBURUAK BETETZEA	
					2016	2016
					Helburua	Betetzea
<b>URAREN ZIKLO INTEGRALA: HORNIDURA</b>						
<b>Hornitutako uraren kalitatea</b>						
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa (parametro konformeen %)	E/A	99,92	100,00	100,00	>99	BAI
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa (parametro konformeen %)		99,83	99,90	99,80	>99	BAI
Hornitutako uraren kalitate kimikoa (parametro konformeen %)		99,79	99,86	99,90	>99	BAI
<b>Banaketa</b>						
Erregistratu gabeko ura (portzentajea)	12,47	12,09	11,48	9,88	<=13	BAI
Erregistratu gabeko ura, sareari dagokionez (m <sup>3</sup> /egun/sarearen km)	6,49	6,03	5,81	4,95	<=7	BAI
Urteko inbertsioa hornidurako sare nagusian (milioi euro)	2,19	0,8	0,6	(1)	Kontuak emateko	
<b>Kontsumoa</b>						
Etxebizitzetako erabilera eta parekatua (litro/biztanle/egun)	114	112	115	115	E/A	
Industria erabilera	47	46	47	46	E/A	
Ureztatzeak	25	24	28	30	E/A	
Orokorra	202	198	205	207	E/A	
<b>URAREN ZIKLO INTEGRALA: ARAZKETA</b>						
Arazketa: esekita dauden solidoak kentzea (%)	E/A	96,92	95,91	96,15	>90	BAI
Arazketa: Oxigeno Eskari Biologikoa kentzea (%)		96,67	96,14	96,48	>90	BAI
Urteko inbertsioa arazketa instalazioetan (milioi euro)	0,78	2	1,7	(1)	Kontuak emateko	
<b>URAREN ZIKLO INTEGRALA: OROKORRA</b>						
Urteko inbertsioa hornidurako eta saneamenduko tokiko sareetan (milioi euro)	0,193	2,7	1,9	(1)	Kontuak emateko	
Bezeroen gogobetetasun maila uraren zerbitzuarekiko (0-10 eskala)	8,0	E/A	7,9	E/A	E/A	
<b>HONDAKINAK</b>						
Berreskuratze osoaren portzentajea (%)	27,2	29,6	33,0	35,42	%38	EZ
Biohondakinen berreskuratze portzentajea (%)	16,6	19,9	24,7	28,9	%35	EZ
Ontzien berreskuratze portzentajea (%)	49,3	51,8	51,4	53,0	Mantendu	BAI
Zabortegira bideratutakoaren portzentajea (%)	45,5	44,9	47,8	49,44	%51	EZ
Hondakinen murrizketa (t) 2014tik auzoko eta etxeko konpostajea	2.774	1.021	834	842	Mantendu	BAI
Hondakinak berreskuratzea, prebentziorik ez						
Bezeroen gogobetetasun maila hondakinen zerbitzuarekiko (0-10 eskala)	7,7	E/A	7,7	E/A	E/A	





URTEKO KUDEAKETA PLANEKO DATUAK ETA ADIERAZLEAK	2013				2014				2015				2016				HELBURUAK BETETZEA	
	2013		2014		2015		2016		2013		2014		2015		2016		Helburua	Betetzea
<b>GARRAIOA</b>															Helburua	Betetzea		
Bidaiari kopurua	33.212.865		32.711.051		34.061.626		35.529.448		34.400.000							BAI		
EHGaren <i>per capita</i> erabilera (Urteko bidaiari kop./Eremuko biztanle kop.)	98,22		96,78		100,44		104,37		101							BAI		
Programatutako espedizioak betetzea (portzentajea)	100		100		100		100		Mantendu %100							BAI		
Puntualtasun indizea (portzentajea)	95,60		94,25		93,32		93,47		Mantendu %92,5							BAI		
Flotaren antzinatasuna	6,89		7,89		8,08		7,36		7,5 urtera jaitsi							BAI		
EHGan egindako inbertsioak	1,81		0,54		2,44		5,37		5,2 milioi euro							BAI		
EHGaren zerbitzuko bidaiariengatiko diru-sarrera garbiak (milioi euro):	17,50		17,63		17,86		17,63		17,2 milioi euro							BAI		
Gogobetetasun globala EHGaren zerbitzuarekiko (0-10 eskala)	7,6		7,6		7,7		7,7		7,6-7,7							BAI		
<b>TAXIA</b>																		
Bezeroen gogobetetasun maila taxiaren zerbitzuarekiko (0-10 eskala)	7,5		E/A		E/A		7,6		Mantendu 7,5							BAI		
<b>IBAI PARKEA</b>																		
Erabiltzaileen gogobetetasun globala (Iruñerriko zatia) Ibai Parkeko zerbitzuarekiko (0-10 eskala)	7,7		E/A		8,0		E/A		E/A									
<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>																		
Aurrez aurreko arreta – Arreta emandako pertsonen kop.	46.495		51.547		65.643		58.655		E/A									
Telefono bidezko arreta – Jasotako deien kop.	101.626		105.626		109.480		100.701		E/A									
Telefono bidezko arreta – Arreta emandako deien kop., guztien gainean	88,92		86,86		88,47		88,52		87							BAI		
Ezarritako epean konpondutako eskaerak.	85,60		88,60		89,30		93,00		88							BAI		
<b>Gogobetetasun globala jasotako zerbitzuarekiko (0-10 eskala)</b>																		
Aurrez aurreko arreta	E/A		(2)		9		E/A		E/A									
Telefono bidezko arreta	E/A		(2)		8,7		E/A		E/A									
Arreta idatzia	E/A		(2)		8,3		E/A		E/A									
<b>KLIMA ALDAKETA, GARAPEN IRAUNKORRA, GIZARTE INGURUNEA eta BERRIKUNTZA</b>																		
IM-SCPSAren karbono aztarna (tona CO <sup>2</sup> baliok.)	39.106		60.275		54.997		(3)		%0,18 gutxitu Kalkulatzeko zain lehen seihilekoan									
<b>Baliabideen aprobetxamendua</b>																		
Energia berriztagarrien ekoizpen osoa (kWh energia hidroelektrikoa + energia biogasa)	57.920.258		49.847.107		50.012.737		50.077.523		>=50.000.000 (prezipitazio maila bera)							BAI		
HHTZren autosufizientzia energetikoa (portzentajea)	353		377		573		604		>=300							BAI		
HUAren autosufizientzia energetikoa (portzentajea)	98,80		100,03		97,70		102,80		>=95							BAI		
Lohiak birziklatzea (tonak)	38.027		31.536		33.617		33.729		sortutakoaren %100							BAI		
Hondakin berdeak birziklatzea (tonak)	9.894		9.808		9.141		8.568		bilgututakoaren%100							BAI		



URTEKO KUDEAKETA PLANEKO DATUAK ETA ADIERAZLEAK	2013	2014	2015	2016	HELBURUAK BETETZEA	
					2016	2016
					Helburua	Betetzea
Konposta merkaturatzea (m <sup>3</sup> saldu/urtean)	5.325	9.155	6.780	5.186	Sortutako konpostaren %100 (5.500m <sup>3</sup> )	BAI
<b>Ingurumen heziketa eta sentsibilizazioa</b>						
Eskola jarduerak, amaitutako ikasturteko	42.171	42.494	37.385	37.585	Mantendu	BAI
Gainerako herritarrentzako jarduerak, amaitutako ikasturteko	2.523	2.800	2.900	3.680	Mantendu	BAI
<b>Berrikuntza</b>						
IDÉATEn aurkeztutako proposamenak			55	41	50 eta 60 artean	EZ
IDÉATEn onartutako proposamenak			17	8	5	BAI
Berrikuntza proiektuak SCPSAn			4	5	5	BAI
Berrikuntza proiektuak enpresekin			2	2	2	BAI
Europako berrikuntza proiektuak			2	2	1	EZ
<b>PERTSONAK</b>						
<b>Garapen profesionala</b>						
Prestakuntza orduak langile bakoitzeko	20,02	28,89	28,99	38,72	Mantendu	BAI
<b>Lan segurtasuna eta osasuna</b>						
Maiztasun indizea (Baja eragin duten istripuen kop./lan egindako orden milioi)	15,16	35,10	19,42	18,59	20-30	BAI
Eragin indizea (Baja eragin duten istripuen kop./1.000 langile)	24,13	55,89	30,92	30,33	30-40	BAI
Larritasun indizea (Galdutako lanaldien kop./lan egindako 1.000 ordu)	0,26	1,00	0,83	0,39	Ez	
Langileen pertzepzioa gai honetako jardueri buruz (pozik edo oso pozik dauden pertsonen %)	(2)	49	E/A	57	Gogobetetasuna handitu	BAI
<b>Absentismoa</b>						
Absentismoa	4,91	5,08	5,96	6,38	Murrizketa	EZ
Absentismoa gaixotasun arruntarengatik	3,08	3,08	4,11	4,92	Murrizketa	EZ
Absentismoa laneko istripuarengatik	0,19	0,77	0,64	0,30	Murriztu	BAI
<b>Gogobetetasuna</b>						
Gogobetetasun globala (pozik edo oso pozik dauden pertsonen %)	(2)	57	E/A	64	Handitu	BAI
<b>EKONOMIA-FINANTZA EMAITZAK</b>						
Ustiatze gastuen estaltze maila	93,67	95,41	97,18	(1)	Kontuak emateko	
Diru-laguntzen parte-hartze maila, beharrezkoak diren egiturak finantzatzean	55,06	55,31	57,17	(1)	Kontuak emateko	
Desbideratzea likidatutako kantitateetan, obretan esleitutako en gainean	5,53	4,18	2,11	5,32	<=10	BAI
Kaudimen indizea	8,38	8,97	9,69	(1)	Kontuak emateko	
Zorpetze maila	4,25	4,01	2,87	(1)	Kontuak emateko	
Kobrantsen indizea (fakturatutako osoaren gainean kobratzea/urtea aldian behingo zerbitzuetan)	98,62	98,70	98,89	99,04	98,5: betea	BAI

(1) Kontuak emateko (2) Egitea proposatu da (3) 2017ko lehen seihilekoan kalkulatu eta zertifikatzeko zain



#### 4. 2016KO HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA

Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan ezarrita dagoenari dagokionez, aipatutakoan aurkeztutako urteko kudeaketa planen betetze emaitzak haztatu egiten dira eta batu egiten zaizkie, prozesu bakoitzaren hobekuntzako barne kudeaketarako planekin batera, Zerbitzu kartetan lortutakoei eta herritarrekiko konpromisoak islatzen dituzten adierazleei, iritzia jakiteko azterlanetan herritarren pertzepzioaren adierazleetan lortutakoei.

2016ko Urteko Kudeaketa Planaren ebaluazio txostenean jasotzen den moduan, barnean hartutako 21 proiektuak, modu globalean, %77,12an bete dira, eta hondakinen arloko proiektuak dira (Gai organikoak tratatzeko plana eta Gainerakoien frakzioa tratatzeko plana), EHGrako garajeen proiektuarekin batera, zailtasun handienak eta atzerapen handienak izan dituztenak betetzen joateko.

Hobekuntza planei dagokienez (44), betetzea %74,53koa izan da.

Kudeaketa adierazleak direla-eta, helburu hauetarako eragina duten 36 adierazle hautatuetatik 30 bete dira osorik, 1 zati batean bete da eta 5 ez dira bete. Horrek esan nahi du betetzea %84,72koa izan dela.

Azkenik, iritzia jakiteko azterlanei dagozkien adierazleak direla-eta, bi urtean behingoak, finkatutako helburuen %100 lortu dute.

Hori guztia kontuan hartuta, kuantifikazioa hau da:

2016KO HELBURUAK BETETZEA				
	ELEMENTUA	HAZTATZEA	BETETZE PORTZENTAJEA	EMAITZA
PROIEKTUAK ETA HOBEKUNTZAK	Urteko Kudeaketa Plana	%40	77,12	30,85
	Prozesuak hobetzeko planak	%10	74,53	7,45
EMAITZAK	Aginte taularen eta Zerbitzu karten adierazleak	%25	84,72	21,78
	Herritarren iritziaren berri izateko azterlanak (gogobetetasuna zerbitzuekiko eta arretarekiko)	%25	100	25,00
			<b>GUZTIRA</b>	<b>84,48</b>